ttipi ttapa

445

2007ko maiatzaren 3a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



## Nafarroako Sokatira Txapelketa Lesakan 36

Larunbat honetan Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketako kanporaketa jokatukoda Lesakan. Bertan izanen dira eskualdeko zazpi taldeak.



## Mendiaz eta basoaz gozatzeko, Irati 39

Iratiko Oihana natur gune ederra da, oinez zein bizikletaz ibiltzeko leku aproposa, eta lasaitasunaz gozatzeko toki ezin hobea. Seinaleztatutako 16 ibilbide ditu.

MAIATZAREN 5EAN EGINEN DA OSPAKIZUNA

# 03 150 urte beteko ditu Lesakako Musika Bandak



natan PRES


BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU
BAR-OSTATVA
MON
ESTANCO - TABACO DENDA
ANZAN-BORDA
VRDAX - VRDAZVBI
ogitartekoak eta
disko musika
goizaldera arte


Denontzako eskola!
Centro
Sagrado
Corazón
Jesusen
Bihotza
ikastetxea
bai
Tfnoa: 948 63 00 09 • scorazonbera@planalfa.es

# URDAZUBIKO BESTAK 2007

## Fiestas de Urdax • Fêtes de Urdax

### Malatzaren 16tik 20ra / del 16 al 20 de Mayo



**MIÉRCOLES, 16 DE MAYO**

**20:00 h:** [illegible]
**22:00 h:** [illegible] **Karretero**. [illegible]

**JUEVES, 17 DE MAYO**

**11:00 h:** **Misa Mayor**.
**12:00 h:** **Aperitivo en el frontón** [illegible] **Zazpiak Bat** y **Gaiteros**.
**16:00 h:** [illegible]
**17:00 h:** **Juegos infantiles con JOKULANDIA**.
**22:00 h:** **Paellada popular**. [illegible] **Kiki Bordatxo**.

**VIERNES, 18 DE MAYO**

**12:00 h:** [illegible] **Futbol** [illegible]
**13:30 h:** [illegible] **Asociación Ugarana** [illegible] **La Koska**.
**14:00 h:** **Dianas** [illegible]
**17:30 h:** **Gorriti** con sus animales.
**19:00 h:** **TAPIA eta LETURIA**.
**21:00 h:** [illegible] LOPETEGI [illegible]
**00:00 h:** **Baile** [illegible] **con el grupo KUPELA**.

**SÁBADO, 19 DE MAYO**

**10:00 h:** CARRERA DE CONTRABANDISTAS.
**12:00 h:** **Campeonato de sokatira** [illegible] 4x4.
**13:00 h:** **Aperitivo con bertsolaris**.
**14:00 h:** [illegible] **Zikiro** [illegible]
**17:30 h:** **Juegos** [illegible] con **JOKULANDIA**.
**20:00 h / 04:00 h:** [illegible] **Orots**.

**DOMINGO, 20 DE MAYO**

**16:00 h:** **Deporte Rural**. [illegible] **Jose Angel**.
**17:00 h:** **Exposición** [illegible] **JOXE BIKONDOA**.
**18:00 h:** **Toro de agua**.
**19:30 h:** [illegible]
**21:00 h:** [illegible] **Pobre de Mí**.
**22:00 h:** **Cena de despedida de fiestas**.

**MAIATZAK 16, ASTEAZKENA**

**20:00** Txupinazoa eta besten hasiera.
**22:00** **Afari berezia** Lehen, Bigarren eta Hirugarren adineko jendearentzat **Karretero Ostatuan**. Ondotik, gaueko giroa alaitzeko **Modesto.**

**MAIATZAK 17, ORTZEGUNA**

**11:00** **Meza Nagusia.**
**12:00** Herriko Pilotalekuan **aperitiboa Zazpiak Bat** dantzari taldearekin eta **Gaiteroekin.**
**16:00** Esku pilota partidak.
**17:00** Haurrentzako jokuak **JOKULANDIA**rekin.
**22:00** **Paella jatea.** Paella jan bitartean eta gau osoan animazioa **Kiki Bordatxo** taldearekin.

**MAIATZAK 18, ORTZIRALA**

**12:00** **Futbol partida** ezkonduak ezkongabeen kontra.
**13:30** **Ugarana** elkartearen bazkaria **La Koxka**n.
**14:00** **Dianak** Dantxarinea auzoan.
**17:30** **Gorriti** eta bere animaliak.
**19:00** **TAPIA eta LETURIA**.
**21:00** **Sagardotegi mugikorra** LOPETEG ahizpa trikitilariekin.
**00:00** **Dantzaldia KUPELA** taldearekin.

**MAIATZAK 19, LARUNBATA**

**10:00** **KONTRABANDISTEN LASTERKETA.**
**12:00** **NAFARROAKO SOKATIRA TXAPELKETA, 4x4.**
**14:00** **Zikiro Jatea** txaranga eta bertsolariekin. Gero opari zozketa, eta ondotik kalejira herriko ostatuetan barrena.
**17:30** Haurrentzako jokuak **JOKULANDIA**rekin.
**20:00/4:00** Dantzaldia **OROTS** taldearekin.

**MAIATZAK 20, IGANDEA**

**16:00** Herri Kirolak. Arratsalde osoan animazioa **Jose Angel**ekin.
**17:00** **Ikuskizuna JOXE BIKONDOA**rekin: aizkoraz egurra buruz beheiti moztu...
**18:00** **Urezko zezena**.
**21:00** **Pobre de Mi** besten bukaera.
**22:00** **Besten bukaerako afaria**.

**MERCREDI, 16 MAI**

**20:00** [illegible]
**22:00** [illegible]

**JEUDI, 17 MAI**

**11:00** [illegible]
**12:00** [illegible]
**16:00** [illegible]
**17:00** [illegible] **JOKULANDIA**.
**22:00** [illegible]

**MERCREDI, 18 MAI**

**12:00** [illegible]
**13:30** [illegible]
**14:00** [illegible]
**17:30** [illegible]
**19:00** [illegible]
**21:00** [illegible]
**00:00** [illegible]

**SAMEDI, 19 MAI**

**10:00** [illegible]
**12:00** [illegible]
**14:00** [illegible]
**17:30** [illegible]
**00:00** [illegible]

**DIMANCHE, 20 MAI**

**16:00** [illegible]
**17:00** [illegible]
**18:00** [illegible]
**19:30** [illegible]
**21:00** [illegible]
**22:00** [illegible]

Laguntzailea
**MON** OSTATUA • TABAKODENDA



MAIATZAREN 5EAN EGINEN DA OSPAKIZUNA

# 150 urte beteko ditu aurten Lesakako Musika Bandak

**150 urte pasatu dira Lesakako Musika Banda sortu zenetik. Nafarroako zaharrena omen da, eta dudarik gabe, erreferentzia garrantzitsua herriarentzat. Rafael Salcedo organista izan zen lehenbiziko zuzendaria. Geroztik, zuzendari saila pasatu dira. Urteurrenaren harira, besta eguna izanen dute larunbat honetan: urte guztian bandak parte hartzen duen Lesakako ekitaldietan oinarrituz, antzezlana prestatu dute.**

**Goizalde URDANPILLETA**

Herriko bestak eta ospakizunak animatzeko asmoz sortu zuten Lesakako Musika Banda 1857. urtean, eta krisialdiak krisialdi, 150 urtez iraun du.Lehenagotik ere herrian musikarako joera nabaria zen. XIX. mende erdialdean, San Martin parrokiako erretore zen Sebastian Ardaizek musika eskolak ematen omen zizkien herriko gazteei. 1857an, Ardaiz hil zenean, Lesakako *Hogeiko Batzordeak* zuzendari berria hautatu behar izan zuen. Garai korapilatsuak ziren, krisi ekonomikoa zela eta. Baina Herriko Etxeko agiriek argi erakusten dute musika irakaskuntza gazteek lana bilatzeko erabilgarria zela, eta «*herrietako bizitza miserableari aitzin eginez, gizarte on baten hezkuntzaren zati garrantzitsu zela*».

1857ko uztailaren 26an egindako bilkuran, hiru interesaturen memoriak aztertu, eta batzordeak Rafael Salcedo izendatu zuten zuzendari. Baina Salcedok herriko apezarekin gorabeherak izan zituen eta kargutik kendu zuten. Hutsunea betetzeko, 12 hautagai aurkeztu ziren, eta behin frogak egindakoan, Iruñeko katedraleko organista zen Damian Sanzek Francisco Viela hautatu zuen.1866ko abenduaren 30ean izan zen hori. Vielak 50 urte egin zituen lanean. 1916an egindako lana eskertze aldera, omenaldia egin zioten.

XIX. mende akabera eta XX.mende hasiera inguruan, ezadostasunak tarteko, Elizak bigarren banda bat sortu zuen. Kasu honetan, elizkizunak alaitzeko. Denboraldi batez, bi banda izan ziren Lesakan: udal banda



## 1857ko araudia *Musika Bandan sartzeko baldintzak*

Irakurtzeko kuriosoa. 150 urtetan gauzak nola aldatu diren adierazten du Lesakako Musika Bandaren orduko araudiak. 1857an izendatu zen orkestra gisa lehen aldiz eta urte horretako uztailaren 26an hainbat baldintza onartu ziren, Rafael Salcedo zuzendari zela. Sei puntutan dago banatua, batzuk bereziak dira eta 150 urte beranduago halakoak irakurtzeak harridura sortzen du:

**1.** *15tik 30 urte bitarteko lesakar guztiak, jarrera ona eta udalaren baimena baldin badute, Filarmonia Elkarteko kide izan daitezke, eta musika eta musika tresna ikasteko aukera izanen dute deus ordaindu gabe. Gisa berean, 12 urte izanangatik ere, mutiko sendoak eta adimentsuak badira, onartuak izanen dira.*

**2.** *Udalak ordainduko ditu musika tresnak, euren konponketak, argiztapena, tresnak eta orkestrak behar dituen gainerakoak, eta zuzendariarekin finkatuko ditu akademiako egun eta orduak, beti ere, urtaroaren eta bazkidei komeni zaienaren arabera.*

**3.** *Bilkuretara eta Udalak edo zuzendariak agindutako emanaldietara joaten ez den bazkidea orkestratik kanporatua izanen da.*

**4.** *Zentzuzko arrazoirik gabe hiru aldiz jarraian edo sei aldiz akademiara edo orkestrako bertze bilkuretara joaten ez bada kanporatua izanen da; zuzendariaren aitzinean bihurrikeria edo errespetu falta erakusten badu ere kanporatuko da, eztabaidatu, iskanbilak sortu edo hitz traketsak erraten baditu. Fama txarreko ostatu eta inguruetan dabiltzanak ere kanporatuko dira, gauez ibiltzen direnak eta umil eta jarrera zuzena ez dutenak.*

**5.** *Ezin duelako edo bertze arrazoi bat tarteko, akademiara joan ezin denak sei ordu lehenagotik abisatu beharko du.*

**6.** *20 urtez azpiko musikariei dagokionean, orkestrari loturiko edozer egiteko bi lagun hautatzeko aukera izanen du zuzendariak.*

*«Fama txarreko ostatu eta inguruetan dabiltzanak bandatik kanporatuko dira»*

eta elizakoa. Baina urte batzuk beranduago, Juan Etxarte *'Pampurrio'* zuzendari zela, bi bandak batu ziren. Kargua utzi zuenean, 1918an, Candido Albistur izendatu zuten zuzendari, eta Etxartek musika eskolako ardura hartu zuen. Zuzendari garrantzitsua, dudarik gabe, partitura ugari konposatu baitzituen. Horien artean, *Lesakako oroipenak* herriko dantzen bilduma. Bitxikeria gisa, aipatu, 20 kide zeudela orduan Bandan eta hauetatik soilik bortzek zutela musika ikasketak. Gainerakoek belarriz jotzen zuten.

### Garai politikoaren eragina

Garai politikoak ere bere arrastoa utzi zuen Bandan. 1931n bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, alkateak Riegoren ereserkia ikastea agindu zuen. Albistur, ordea, karlista izaki, ez zuen horrelakorik egin nahi izan eta, Udalarekin akordio batera ailegatu ez zenez, dimisioa aurkeztu zuen. Dena den, diskrezioa eman nahian edo, bertzelako itxura eman zitzaion auziari.

Lan aunitzeko urteak izan ziren. Udalak akademiako arduradunarentzat araudia onartu zuen orduan, eta Bandari ikur bat eman. Izan ere, ordurako herritik kanpo kontzertuak eskaintzen zituen, Gipuzkoan zein Nafarroan.

1931n Bautista Berges izendatu zuten zuzendari kargurako, baina kideen arteko tentsioa zela eta, 1934an bortxatutako eszedentzia eman zioten, Udal Banda desegin zenean. Krisiak krisi, musikariek ez zuten igande batean ere hutsik egin. 1935ean Bandak Udalarekin zuen dependentzia hautsi eta dirulaguntza emateko hitzarmena sinatu zuten. Musikariek Pantaleon Agara izendatu zuten presidente kargurako.

Tomas Agirre, Luis Oronoz, Gillermo Agara… Izen andana pasatu dira zuzendaritza kargutik. Baina 1965ean Gillermo Agarak kargua utzi zuenean arduradunik gabe gelditu zen Banda. Hala ere, urtero eta zenbait musikarien laguntzari esker, ez zuten hutsik egin San Fermin Egunean. 1982an berriz indartu zen Banda Jabier Igoa zuzendariarekin. Gaur egun, Mikel Iriarte dago kargu horretan, 1998az geroztik.

### Bandaren aipamenak egunkarietako kroniketan

Lesakako kronikei begira, sarritan Bandaren aipamenak ageri dira. 1919ko uztailaren 25ean, adibidez, musika besta handi bat izan zela goratzen dute. Bertze kronika bat aipatzearren, 1918ko uztailaren 5ekoa egin dezagun. Lesakako Udalak San Fermin bestak zirela eta, egitarau zabala prestatu zuen, eta horien artean, uztailaren 6ko arratsean, Musika Bandak Plaza Zaharreko kioskotik eskainitako dantza saioa.

## OSPAKIZUN EGUNA

Egun berezia izanen da larunbata Lesakan. Musika Bandaren 150. urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Goiz-goizetik hasiko da mugimendua herrian, 10:00etan diana izanen da. Arratsalde partean, 19:00etan meza eginen da hildako musikarien omenez. Ekitaldi nagusia, ordea, 21:30erako prestatu dute. Plaza zaharrean izanen da, eta Musika Bandak urte guztian parte hartzen duen Lesakako ekitaldi desberdinen antzezlan bat eginen da. Lesakan ezinbertzeko erreferentzia diren pertsonaiak ikusteko aukera izanen da: Ezpata dantzariak, Olentzero, zaku-zaharrak, fraindarrak, goitarrak... Guztiak bilduko dira larunbateko ekitaldi nagusian. Ekitaldiari segida emateko, 23:30ean afaria eginen da herritar guztientzako. Horretarako txartelak salgai paratu dituzte herriko ostatuetan.



ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.net**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea…
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 32 € |
| Espainia | 32 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 52 € |
| Europa | 52 € |
| Amerika | 110 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 26 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Etxalarko EAren oharra

Ez da batere goxoa bertze alderdi politiko batek errandakoari erantzun behar izatea. Hala ere, Herri Taldeak egin dituen komentario batzuk azaldu beharrean gaude.

**Patzuergo Turistikoarekin bueltaka**

Tristea da Agustin Arribillaga Patzuergotik kentzea justifikatzeko Bentako zubiaren gaia erabiltzea behin eta berriz. Argudio hori erabiltzea kentzeko egiazko arrazoietik arreta desbiatzeko aitzakia bat aprobetxatzea bertzerik ez dela uste dugu EAn.

Agustín Arribillagak zubiaren gaian jo eta ke kikildu gabe lan egin du Etxalarri Bide Berdean sarrera emanen zion zubi bat lortzeko. Gainera, Udalari euro bat kosta gabe egin du. Erran dezakegun gauza bakarra da, espero dugula hurrengo legealdian Agustinek zubi hori Bide Berdearen proiektuan sartzeko aukera izatea, Udalak ezer ordaindu. Ez dauka inolako funtsik zinegotzi bat lan egiteagatik kentzea, ez badago bertze arrazoirik. Eta benetako arrazoia Agustin Arribillagak Gasna Feriarako dirulaguntza bat kudeatu eta lortu zuela bertzerik ez da. Dirulaguntza hori jasotzeko tramite administratibo batzuk betetzea beharrezkoa zen, edozein laguntzatan bezala. Betebehar administratibo horren arduradunak/ek hori jasotzeko behar ziren baldintzak betetzen ez dute jakin, ezin izan dute edo ez dute nahi izan. Beren erantzukizuna ez onartzeko errudunen bat bilatu behar zuten, eta bere lana ongi egin duena bilatu dute. Badirudi dirulaguntzarik jaso gabe gelditu nahiago duen norbait badagoela, EAk lortu duela aitortu baino. Edozein modutan, lasai egon daiteke, agian, dirulaguntza kobratuko da behingoz, nahiz eta ez den gaur egun Bertizko Patzuergoan dagoen Udalaren ordezkariaren lanari esker izanen.

**2007ko inbertsioak**

Aski da 2007rako aurreikusitako inbertsioei begirada bat ematea, hauetako aunitz jadanik 2006an aurreikusi zirela konturatzeko. Pasa den urtean ez beteta, 2007ko agintzak bezala saldu nahi dizkigute. *Elektoralismo* hutsa. Ahaztu zaie agintza horietako aunitz Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak lortzera baldintzatuak daudela. Joan den urtean ez zuten laguntzarik lortu ahal izan edo jakin izan, eta horregatik, aurreikusitako inbertsio gehienak gauzatu gabe gelditu ziren. Eta, zaila denez dirulaguntzak lortzea, gogor eta ongi lan egin behar da hauek eskuratzeko.

**Bideak**

Udalak bere gain bide publikoen hobekuntzak hartzea bideragarria da. Aski da 2007ko inbertsioen puntuan agertzen den bideetako inbertsioak betetzea. Agintzen dena beteko balitz, ongi ibiliko ginateke baina egia da 2006ko aurrekontuan ere agertzen zela eta ez zela egin.

**Arrakoitz**

Industrialdetik ahalik eta irabazi ekonomiko eta sozial gehiena guztien onurarako, ez partikular batendako, itzultzeko borondate falta somatzen dugu. Gai honetan, udal bati exijitu behar zaiona interes publikoari lehentasuna ematea da. Horrek lana eta dedikazioa eskatzen ditu. Ez ahaztu industrialde honetan interes publikoa aurretik jartzeko Udalan eztabaidatu diren ekimenak EAren proposamenak izan direla. Eta bide horretatik segituko dugu.

**Bekolanda**

Ez da onargarria gai honetan erantzukizunak baztertzea. Udalaren betebeharra da urbanizazioko obrak fundamentuarekin egitea exijitzea. Gainera, erraten den bezala, ez bada Udalari dagokion gai bat, zergatik ordaindu ditu Udalak urbanizazio horretako obrak eta 2007-an guttienez bertze obra bat ordaindu behar du? EAri ez digu balio Udalak ordaindu behar izatea, ezer egiteko ahalmenik gabe.

Laburbilduz, EAtik gure lanean gogor hariko garela errepikatzen dugu eta ez dugu onartuko erantzukizunak baztertzerik ez gezurrezko errudunak bilatzea ere, benetako arazoetatik arreta kentzeko.

**Etxalarko EA**

## Euskara alderdi politikoen hauteskundeetako programetan

Aurten maiatzaren 27an udal hauteskundeak direla kontuan hartuta, Euskal Herrian




ttipi ttapa
☎ (0034) 948 635458



# • IRAKURLEAK MINTZO •

Euskaraz erakundeak ondorengo mezua luzatu die Berako eta Lesakako alderdiei.

Euskararen auziari lotuta, Herriko Etxeek ezinbesteko papera jokatzen dute euskararen normalizazioa lortzeko.

Udal bakoitzak bere hizkuntza politika dauka, eta bertatik neurri politikoak hartu behar dira euskara berreskuratu ahal izateko. Beraz, alderdi politikoek dute erantzunkizun nagusia gai honetan.

Egun euskarak eta euskaldunok jasaten dugun bigarren mailako egoera gainditzeko eta euskararen normalizazioa erdiesteko, hizkuntza politika oso eta eraginkorra abian jartzea exijitzen diegu udalei.

Honekin batera, udal hauteskundeei begira, alderdiek neurri zehatzak hartu behar dituztela uste dugu:

1. Hauteskundeetarako aurkeztuko dituzten hautetsi guztiak euskaldunak izatea

2. Udal hauteskundeetarako programan hizkuntza politika oso baten proposamena egitea eta neurri politiko zehatzak planteatzea. Oinarrizkoak hauek direla deritzogu:

Udalerrian euskara ofiziala eta lehentasunezkoa izendatzea.

Hizkuntza politikaren helburu nagusia euskararen normalizazioa izatea.

Herritarrak udalean euskara erabiltzeko eskubidea bermatzea, harreman guztietan.

Udalak egungo langile erdaldunak euskalduntzeko plana abian jartzea eta kontratatu beharrekoak euskaldunak izatea

Lan hizkuntza euskara izan behar da: udal plenoetan, txostenetan, prentsaren aurrean….

Hizkuntza politika horretarako behar diren baliabideak ezartzea.

Udal araudi eraginkorrak proposatu eta sustatzea. Udal ordenetzen bidez hizkuntza arauak ezarri behar dira.

Paisaia linguistikoari begira, udalaren esku dauden esparru guztiak euskaraz egotea.

Udalak argitaratzen dituzten bandoak, aldizkariak, inprimakiak, lanpostu deialdiak euskara lehentasunez agertzea.

Aurrekontuen %2 gutxienez, euskararen normalizazioa bideratzeko.

Udalak , normalkuntza planen osaketa, inplementazio eta segimendurako beharrezkoa den organo parte hartzailea lortu behar du. Euskalgintzarekin eta bestelako eragileekin ( herritarrak, eskolak, merkatariak, enpresak…) elkarlanean aritzea ezinbestekoa da.

Gure ustez, euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak emateko neurri hauek hartzea funtsezkoa da. Argi dugu, horiekin soilik ez dela normalizazio osoa lortuko, bestelako aldagaiak badaudelako, baina udal administrazioak dagokion erantzunkizuna bete behar du. Alderdiei, administrazioetan duten ardura politikoa ikusirik, neurri hauek guztiak planteatu eta abian jartzea dagokie.

Eta zuei herritarroi, botoa ematerakoan alderdiek euskararen inguruan duten jarrera kontuan hartzea eskatu nahi dizuegu; denon artean benetako udal eta herri euskalduna lor dezakegulako.

**Lesakako EHE**
**Gotzone Rekondo**

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izendeiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.













# BORTZIRIETAN

## IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019

- Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
- Doan



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215

- Jantoki eta garraio zerbitzuekin
- Integratzailea
- Teknologi berriez baliatuta



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

- Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
- DBH, Batxilergoak eta LH bertako Institutuan

# Txikiak hezituz handitu

Haur eta Lehen Hezkuntza maiatzaren 9tik 22ra
DBH: maiatzaren 10tik 21ra
Goi mailako Heziketa zikloa: maiatzaren 17tik 28ra

BERA

# Udalak Ibardingo zabortegia ixteko eskatu dio Hiri Hondakinen Mankomunitateari

## Nafarroako Gobernuak 115.627 euroko dirulaguntza eman du Uxane zentroarentzat

Amaia eta Ainhoa

Udalak Ibardingo zabortegia ixteko eskatu dio Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateari, zabortegiaren egoera txarra delako. Dirudienez, azken hilabeteetan Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean Berako ordezkariek Ibardingo zabortegiaren egoeraz eta kudeaketaz hainbat proposamen, kezka eta galdera egin dituzte. Eskaerari erantzunez, Mankomunitateak txosten bat bidali omen du, baina badirudi ez duela inolako erabakirik hartu. Udalaren ustez, egoera gero eta jasangaitzagoa da, eta Mankomunitateari hainbat eskaera egin dizkio: Ibardingo zabortegiaren kudeaketa hobetzeko beharrezko neurriak hartzea, zabortegian baimenduak dauden hondakinak baino ez onartzea eta zaborraren kontrola areagotzea.

Horrez gain, Urruñako Udalak aurkeztutako txostenaren harira, lixibiatuekin sortutako arazoei aurre egiteko neurriak urgentziaz hartzea ere eskatu dio, eta ekainean zabortegia behin betirako itxi eta gestioak egin ditzala zaborra bertze toki batera eramateko. Ixten ez bada, Udalak neurriak hartuko omen ditu.

### *Ikastolako bilera*

Maiatzaren 9an 16:00etan Eztegarako egoitzan hiru urtekoen gelaren aurkezpen bilera izanen da.

### *Dirulaguntza Uxanerentzat*

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak 115.627 euroko laguntza eman dio Aspace Fundazioari Uxane okupazio-zentroa bultzatzeko. Uxanek Bortziriak eta Malerrekako adimen-urritasuna eta gizartean integratzeko arazoak dituztenei ematen die laguntza.

### *Bestetako kartel lehiaketa*

Kultur Batzordeak 2007ko Sanesteban bestetako kartel lehiaketa zabaldu du. Lanak hilaren 25eko 13:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxeko bulegoetan.

**ARALAR**



**Marisol Taberna Irazoki**

2. Jon Abril Olaetxea. 3. Fernando Berasain Gaintza. 4. Joxe Juan Lanz Apeztegia. 5. Koro Irazoki Arburua. 6. J. M. Aranibar Iturralde. 7. Iker Igoa Txantre. 8. Gabriel Errandonea Goikoetxea. 9. Nekane Perez Irazabal. 10. Patxi Larretxea Lazkano. 11.Saioa Ataun O.

**B. ABERTZALE SOZIALISTAK**



**Josu Goia Etxeberria**

2. Bittori Telletxea. 3. JoseLuis Unsion Pabolleta.4.MªJ Errandonea Altzuguren. 5.MªC. Prieto Beltran. 6. Ramon Zubieta Otxoteko. 7.Ekhine Larralde Lertxundi. 8.Antonio Eskudero Telletxea. 9.Itxaro Aranibar Eltzaurdia. 10.Gaizka Ganboa. 11.Ander Udaeta.

**EA**



**Helena Santesteban Gelbenzu**

2. Alfredo Goienetxe Ines. 3. Josefa Otiñano Esparza. 4. Rafael Etxeberria Perurena. 5. Irene Almandoz Endara. 6. Alexandre Larque Zelaieta. 7. Mª C Aldalur Arrieta. 8. J. Alacid Clemente. 9. Mª Zozaia Arretxea. 10. Angel Mª Blas Inda. 11. Isabel Apeztegia.

**EAE-ANV**



**Josu Iratzoki Agirre**

2. MªAmaia Telletxea Inda. 3.Ramon Elgorriaga Errandonea. 4. Aintzane Artola Urrutia. 5.Gotzone Matxiarena Aldalur. 6.Ramon Iglesias Vazquez. 7.Aiala Zubieta Bertiz. 8.J.Mª Lasaga Sansiñena. 9.Mikel Aranibar Almandoz. 10.JMª Mitxelena. 11.MªJ. Altzugarai

**EAJ-PNV**



**Santiago Altzuguren Matxikote**

2. Isidora Agirre Ubiria. 3. Cecilio Pando Rojo. 4. Fernando Mikelarena Peña. 5. Fco Zozaia Arretxea. 6. Juan Carlos Martiarena Cordoba. 7. Javier Goienetxe Fagoaga. 8. Iñaki Martinez Gorostiza. 9. Xabier Dagerre Irigoien. 10. Luciano Erkizia Azkue. 11.Ramon Tapia.







LESAKA

# Herriko 32 merkatarik Zerbitzu Elkartea sortu dute

## Lehendakari lanetan Maite Igartzabal arituko da eta Javier Oronoz izanen da idazkaria

Aitor AROTZENA

Herriko merkataritza indartzeko asmoz, Lesakako 32 ostatu, dendari eta enpresarik Lesakako Zerbitzu Elkartea eratu dute. Elkartea apirilaren 18an aurkeztu zuten eta indarrak batzearen beharra azpimarratu zuten. Elkarteak junta bat izanen du, eta lehendakari lanetan Maita Igartzabal arituko da. Idazkaria, berriz, Javier Oronoz izendatu dute. Ana Igoa lehendakariordea izanen da, eta Rosa Lasaga diruzaina. Batzordea osatzen duten gainerako kideak Iñaki Portu, Esther Altzugarai eta Marian Mendiberri dira. Aurreikusitako proiektuen artean, uda aldera sustapenak egin nahi dituzte eta udazkenean ikastaroak egiten hasteko asmoa dute.

**Batasuna eta aniztasuna logoan**

Elkarteak badu dagoeneko logotipoa. Aukeratzeko zabaldutako lehiaketan 9 obra aurkeztu ziren eta Urtzi Llarenarena hautatu zuten. Honek *«zerbitzuen batasuna eta aniztasuna»* eman nahian, hondo zuria duen espiral bat marraztu zuen, tonu desberdinetako berdeak dituen zirkuluekin.



Argazkia: Aitor A.

### *Erdi Aroko Feria jendetsua aurten ere*

**Urtetik urtera indar gehiago hartzen ari da Erdi Aroko Feria. Aurten laugarren edizioa bete zuen eta urtero postu, ikuskizun eta salgai berdintsuak izaten badira ere, beti izaten da berrikuntzaren bat. Aurten, Erdi Aroko kanpamendua plantatu zuten plazako aparkalekuan eta garai hartako gudarien kontra ezpataz borrokatzeko aukera izan zen.**

### EA



**Koldo Erkizia Otxoteko**

2. Juan C. Aiala Fdez. 3.Noelia Etxarte Altzuri. 4. Severiano Txoperena Matxikote. 5. Bixente Lekuona Galardi. 6. J.Emilio del Rio Etxeberria. 7. Santiago Oiartzabal Mendiburu. 8. Manuel Sarobe Bereau. 9. Isidro Saralegi . 10. J.Antonio Leiza. 11. Pello Urtasun.

### EAE-ANV



**Edurne Rekondo Ferrero**

2. Iban Maia Ormazabal. 3. Begoña Igoa Almandoz. 4. Gaizka Sarasola Iartzabal. 5. Ane Elosegi Alaba. 6. JuanMª Etxeberria Tapia. 7. Iosune Etxepare Tapia. 8. Eneko Fdez Maritxalar. 9. Mª Victoria Gaztelumendi Galzagorri. 10. Iñigo Olaetxea Altzugarai. 11. Miren Conde.

### EAJ-PNV



**Juan Fermin Mitxelena Larralde**

2. Laura Iantzi Mitxelena. 3. J.MªPortu Otxoteko. 4. Andoni Maritxalar Mendia. 5. Pello Apeztegia Altzugarai. 6. Iban de Prado Etxepeteleku. 7. Esteban Etxebeste Apeztegia. 8.Nekane Goia Telletxea. 9. Antonio Hidalgo Hidalgo. 10.Javier Telletxea. 11.CarlosUbiria.

### L. ABERTZALE SOZIALISTAK



**Andoni Sarasola Iartzabal**

2. Jose Emilio Txoperena Zugarramurdi. 3. Patricia Martinez Mateo. 4. Koldo Sanez de Benito. 5. Kontxi Erro Jauregi. 6. Mª Pilar Fagoaga Iantzi. 7. Ainhoa Terreros Gartzia. 8. Fco Portu Iantzi. 9. Ion Endika Saralegi Altzate. 10. J.Luis Etxeberria. 11.Gotzone Rekondo

### ONIN



**Deñe Abuin Arrasate**

2. Fermin Altzugarai Igantzi. 3. Tomas Maia Tapia. 4. J.Mª Flores Domingez. 5. Nicolas Iribarren Etxeberria. 6. Gabriel Igarzabal Etxabide. 7. J.Felix Aletxa Barrena. 8. Ramona Lanz Otxoteko. 9. Salvador Madariaga Almandoz. 10. J. Manuel Merino. 11. Maite Telletxea.








ETXALAR

# Joxe Jabier Zubieta izanen da Larraburuko lehendakari berria

## Jabier Indabururen erreleboa hartuko du



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

**Euskaltzaindiaren agerraldian hitza hartu zutenak ageri dira argazkian, tartean Patxiku Irisarri alkatea eta Pello Apezetxea herriko apeza.**

**Joseba eta Nerea**

Azkeneko bortz urteotan lehendakari izan den Jabier Indaburuk kargua utzi du. *«Armonia onean bereizi naiz Larraburutik eta oraindik ere harremanetan segituko dut. Podologoaren kontua erraterako, nik eramaten segituko dut»*, erran digu Jabier Indaburuk.

Lehendakari berriarekin batera, bertze aldaketa batzuk ere izan dira juntan. Horrela gelditu da: lehendakaria Joxe Jabier Zubieta, lehendakariorde Anuntxi Agesta, diruzaina Birjinia Arburua eta bokala JosePaul Corrales. Lerro hauek idazterakoan bigarren bokalaren izena erabaki gabe zegoen. Francisco Jabier Irisarrik edo Mª Angeles Elizagoienek osatuko dute Larraburuko junta.

### *Jende aunitz Euskaltzaindiaren hitzaldietan*

Joan den apirilaren 19tik 21era Euskaltzaindiak bere XV. Barne Jardunaldiak egin zituen Etxalarko Kultur Etxean. Azkeneko egunean, larunbatean, bilkura irekia egin zuten eta herritar aunitz hurbildu zen Kultur Etxera agerraldia ikustera. Pello Apezetxeak eta Patxi Iñigok hitzaldi interesgarriak eskaini zituzten. Euskaltzain izandako bi etxalartarren inguruan –Teodoro Arburua eta Eusebio Etxalarkoaz– aritu zen Pello Apezetxea, eta Bortzirietako euskalkien inguruan Patxi Iñigo. Kultur Etxea goraino bete zen eta jendeak interes handiz segitu zituen bi hitzaldiak.

### *Beñat Irazoki eta Jabier Arribillaga igerilekuko sorosle*

Joan den urtean bezala, aurtengo udan ere Bagoleko Beñat eta Olaindiko Jabier izanen dira igerilekuko arduradunak. Udaletxeak ateratako deialdian eurena izan zen aurkeztutako eskaintza bakarra eta eurei adjudikatu zaie ekaina hondarretik abuztu bukaerarteko igerileku-epealdia. Ekainaren 25ean irekiko dira igerilekuak eta abuztuaren 30ean itxi. Beñat Irazokik hirugarren urtea izanen du aurtengoa eta Jabier Arribillagak bigarrena.

**EA**



**Arantzazu Zubieta Ameztoi**

2. Agustin Arribillaga Danboriena. 3. Jose Antonio Telletxea Bergara. 4. Gabriel Arburua Etxeberria. 5. Aitor Jose Sansiñena Sarobe. 6. Imanol Leza Olaizola. 7. Jose Ariztegi Irigoien.

**HERRI TALDEA**



**Patxiku Irisarri Elizagoien**

2. Xabier Iturria Arburua. 3. Nerea Mitxeltorena Iparragirre. 4. Irati Lujua Etxenike. 5. Ignacio Atondo Vega. 6.Axun Maia Ariztegi. 7. Salvador Ansalas Ozkariz.









## ARANTZA

**ARANTZA AITZINERA**



**Ainara Maia Almandoz**

2. Jaime Iturria Mitxelena. 3. Aitor Telletxea Larretxea. 4. Ainara Amoros Graner. 5. Koldobike Gorostiza Uriguen. 6. Juanjo Altzuri Apezetxea. 7. Trini Bergara Almandoz.

**EAJ-PNV**



**Vicente Arotzena Biurrarena**

2. Fco Javier Taberna Iturria. 3. Julio Lukanbio Gonzalez. 4. Juan Luis Etxeberria Madariaga. 5. Antton Yubero Estefano. 6. Esther Arozena Andueza. 7. Mª Luisa Almandoz Mitxelena.



ARGAZKIA:XABI ZUGARRAMURDI

### *'Zubi' gogoan*

**Urte hasieran Taillon mendian zendutako Xabier Zubieta mendigoizalea omendu zuten joan den apirilaren 21ean Ekaitzako Bultuko Gainean. Aitzineko larunbatean, bere oroimenez harri bat paratu zuten mendi itzuliko bere lagunek, eta zortzi egunen buruan, aipatu dugun larunbat goiz horretan, lagun koadrila batek, tartean bere emazte eta seme-alabak, ekitaldi ttiki batean parte hartu zuten. Zubietaren gogoko lekua zen Ekaitzako Bultuko Gaina ere, eta bere betiko desioa omen zen bertan ikurrina paratzea. Horixe oroitarazi zuen omenaldian Xabik hasierako hitzetan. Ondotik, Ana bere emazteak ikurrina jarri zuen harrien ondoan, eta Aitorrek bertsoa kantatu zuen. Azkenik, Aintzane eta Maider txistulariek akabera eman zioten omenaldi-ekitaldi xume eta hunkigarriari.**

# Hauteskundeetarako bi zerrenda aurkeztu dira

## Maitzaren 12an Udaberriko Birak pausaldia eginen du herrian

**Nerea ALTZURI**

Eguraldi hobeak hasi dira, bero sargorien aldiak ere somatu ditugu. Horrek kanpo giroa areagotu du eta bertakoentzat eta herrira bisitara etortzen direnentzat eguna pasatzeko erraztu egin ditu zereginak. Baserri inguruetan baratzeetan ikusten dira herritar batzuk; bertzalde, pasioan dabiltzanek ere egun ateriak aprobetxatzen dituzte, eta adibidez, aterpera datozen haur zein helduek Aterpekoek antolaturiko ateraldi eta ekintzetan parte hartzen dute: Senberroko bordako zuhaitz parkea (tirolina), kobazuloan, mendi irtereetan…

Nabaria da eguraldi ederrak mugimendua eragiten duela gure artean, eta mugimendua ere, heldu den udal-hauteskundeei begira. Inguruko herrietan bezala, hurrengo bozetarako herritar zenbaitek zerrendak osatu dituzte, orrialde honetan bertan ikusiko duzuen bezala.

### *Udaberriko Bira*

Datorren maiatzaren 12an, Udaberriko Biraren barne, meza ondotik eta frontoian, Atarrabiako Mikelats dantza taldeak emanaldia eskainiko du. Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak antolatzen du ekimena 200 eta 1.000 biztanle artean dituzten Nafarroako herrietan. Urte gehienetan, udaberrian ez ezik, udazkenean ere antzerki, dantza, edo abesbatzaren batek herria bisitatzen du.













## SUNBILLA

# Lizun Gaztandegiak 2006ko *erregulartasunaren saria* jaso du

Idiazabal Jatorri-deiturak ematen duen saria, joan de astean hartu zuten Iruñeko Napardi elkartean

Jaione OTXANDORENA

Gure inguruan ez ezik, EuskaHerri osoan ezagunak dira Sunbillako Lizun gaztandegiko gaztak. Egiten duten lanaren kalitatea sarituz, joan den astean, apirilaren 25ean, Idiazabal Jatorri-Deiturako gazten *erregulartasunaren saria* jaso zuten Luis Vicente eta Rosa Urkijok. Sariaren irabazle zirela Ordizian erran bazieten ere, sari banaketa Iruñeko Napardi elkartean egin zen. Aurtengo gazta denboraldiari Patxi Izkok, Osasunako lehendakariak, hasiera eman zioenean. Azkeneko urteotan hiru aldiz jaso dute sari hau Sunbillako Lizun gaztandegikoek: 2003, 2004 eta 2006an, baina orain dela hamar urte ere, sari hau berbera hartua zuten baita. Zorionak!

### *Mus txapelketa*

Asteburu kulturalean hileta elizkizunak izan zirela eta, ez zen Antzakaitz kultur taldeak antolatutako mus txapelketa egiterik izan, eta ondorioz, joan den apirilaren 22an egin zen txapelketa. Itturburu ostatuan arratsaldeko 5etan. Bederatzi bikotek eman zuten izena. Irabazleak Pilar Korta eta Koro Zelaieta izan ziren eta bigarrenak Edurne Urroz eta Angel Marizkurrena.

### *Ulibeltzak elkartearen aldaketak ateraldietan*

Mendi taldeko arduradunek jakinarazi dutenez, aurten prestatutako ateraldietan aldaketa batzuk izanen dira. Aldaketa horien berri Ulibeltzak elkarteean, Fondan eta Itturburun jarriko dituzte. Zerrendak ere jarriko dira mendi ateraldietan parte hartu nahi dutenek izena emateko. Ateraldi horietako aunitzetan autobusa eta bazkaria barne dutenez, izena ematea lehenbailehen egitea eskatzen da.

## IGANTZI

### EA



**Jose Luis Sein Sansiñena**

2. Begoña Iparragirre Sanzberro. 3. Koldo Amezketa Diaz. 4. Carlos Garaikoetxea Mina. 5.Isabel Mangado Cortes. 6. Bakartxo Ziaurriz Velasco. 7. Libe Urroz Monasterio

### EAJ-PNV



**Iñaki Goienetxe Zubieta**

2. Aitor Antxordoki Almandoz. 3. Agustin Sainz Irigoien. 4. Juantxo Etxebeste Urtxegi. 5. Mª Carmen Zozaia Arretxea. 6. Jone Fernandez Rodrigo. 7. J. Javier Urtxegi Huitzi.

## SUNBILLA

### EA



**Jose Francisco Errandonea Zubieta**

2. Margarita Capdegi Aiertza. 3. Jose Miguel Zelaieta Lastiri. 4. Santiago Arretxea Hernandorena. 5. Mª Jose Mitxelena Otegi. 6. Jose Vidal Ibarra Iriarte. 7. Miren Iosune Etxebeste Arretxea.

### EAE-ANV



**Jon Ancizar Ibarra**

2. Faustino Marizkurrena Azpiroz. 3.Pablo Maritxalar Etxenike. 4.Juan Jorajuria Lastiri. 5. Pilar Korta Gandara. 6. Miren Josune Otxandorena Andiarena. 7.Iosu Apeztegia Ibarra.

### SUNBILDARRAK



**Ainhoa Etxebeste Arretxea**

2. Lucio Irazoki Etxeberria. 3. Jose Luis Arretxea Arretxea. 4. Francisco Apeztegia Arretxea. 5. Josetxo Galarregi Gonzalez. 6. Mª Jose Migeltorena Bertiz. 7. Ana Arretxea Irigoien.






MALERREKA

# Donamaria, Oitz eta Zubietan ez da hauteskundeetarako zerrendarik aurkeztu

## Hemendik sei hilabetera berriz izanen da udal hauteskundeak egiteko deialdia

ttipi-ttapa

Apirilaren 23an akitu zen udal-hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko epea, baina hala ere, Nafarroako hainbat herritan ez da inor aurkeztu. Malerrekaren kasuan, hiru herri dira zerrendarik gabe gelditu direnak: Donamaria, Oitz eta Zubieta. Hala, legeak aurreikusten duenez, hemendik sei hilabetera bigarren aukera izanen dute udal berria aukeratzeko. Ikusi egin beharko da orduan Herriko Etxean lan egiteko talderik aurkezten den ala ez.

Donamariaren eta Zubietaren kasuan aitzineko hauteskundeetan talde bana aurkeztu zen, eta azken aldian, Donamarian Ricardo Sagaseta eta Zubietan Leire Ortuoste izan dira alkate. Oitzen ordea, 2003ko hauteskundeetan ez zen zerrendarik aurkeztu, ezta 1999koetara ere.

Malerrekako gainerako herrietan zerrendak aurkeztu dira, bortz hautetsiko zerrenda irekiak batzuetan, zazpi hautagaikoak bertzeetan. Herri gehienetan bakarra aurkeztu da.

### URROTZ

**Herriko Alkartasuna**

1. Ignacio Urroz Gragirena. 2. Juan Zozaia Goñi. 3. Martin Mariezkurrena Juanena. 4. Jose Luis Larraioz Ariztegi. 5. Joseba Miren Urroz Telletxea.

### ELGORRIAGA

**BOSTORRAZ**

1. Jose Ignacio Olazar Apeztegia. 2. J. Miguel Galarregi Apeztegia. 3. Santos Iruruetta Santesteban. 4. Juan J. Perez Arriluzea Sagasti. 5. Lorena Victoria Galarregi Fernandez.

**NAFARROA BAI**

1. Arrosatxo Ibarra Ibarra. 2. Eva Martin Ibarra. 3. Luis Cambra Martinez. 4. Xabier Irisarri Goienetxe. 5. Juan Sukilbide Olazar.

### BEINTZA-LABAIEN

**URRADI**



Fco. Javier Otxandorena Juanotena

2. Angel Elizondo Etxegia. 3. Pedro Telletxea Arzuaga. 4. Jaime Mindegia Lopez. 5. Mª Rosa Grazenea Esain. 6. Lazaro Javier Erasun Etxeberria. 7. Jose Mª Telletxea Albistur.

### DONEZTEBE

**EA**



Miguel San Miguel Azpiroz

2. Avelino Mitxeo Iriarte 3. Oscar Mindegia Bidegain. 4. Juana Maria Muñoz Amorena. 5. Maria Gloria Agerri Asiain. 6. Martin Arretxea Belarra. 7. Josu Urreaga Burgete. 8. Eduardo Oiarzabal Mitxeo. 9. Ana Maria Etxeberria Sistiaga.
















MALERREKA

# Errekako seniorrek 9. lekuan akitu dute Areto Futboleko Txapelketa



## Noelia Ariztia azpitxapeldun Espainiako Txapelketan

**ttipi-ttapa**

Areto futbolean, Errekako senior taldeak bukatu du aurtengo Liga Txapelketa. Ligan 12 talde aritu dira lehian eta azkenean 9.postuan akitu du. Azkeneko bi taldeak izaten dira mailaz jaisten direnak, eta 9. bukatu izanagatik ere, problema haundirik gabe ekidin dituzte azken postuak.

Denboraldi hasieran gaizki samar ibili ziren, baina hagitz joku eta emaitza onekin bukatu dute liga, 15 punturekin. Jokatutako partidetatik, sei irabazi dituzte, hiru berdindu eta 13 galdu. Txapela, berriz, Senda Viva Tudelano Taldeak irabazi du. Orain Kopa Txapelketaren txanda da da Errekarentzat.

### *Noelia Ariztia azpitxapeldun Espainiako Txapelketan*

Noelia Ariztia Errekako doneztebarrak emaitza onak eskuratzen jarraitzen du. Azkena Espainiako Txapelketan lortu du, azpitxapeldun gelditu baita 23 urtez azpikoetan.

Txapelketa Fuenlabradan burutu zen apirilaren 21an, eta bikain aritu zen. Hasteko, iazko azpitxapeldunari irabazi zion, eta gero bertze bi judoka gehiagori. Finalerdietan iazko txapelduna garaitu zuen eta finalean Alicanteko judoka baten kontra galdu zuen. Hemendik guttira, Txapelketa unibertsitarioa jokatuko du.

Rural Kutxaren Gordailu Berezia

BESTE ARRAZOI BAT AUKERATZEKO RURAL KUTXA:

Errentagarritasuna eta Segurtasuna

INBERTSIOAREN %50a
TASA FINKOKO GORDAILUA
TASA FINKOA
%5,50
%5,52 T.A.E.
Epea: 10 hilabete
Interesen ordainketa: 10 hilabeteak igarotzean.

INBERTSIOAREN %50a
ERREFERENTZIAKO GORDAILUA
%100a
Eurostoxx-50 indizearen hilabeteko metaketaren errebalorizazioarena
Epea: 2 urte
Capital garantizatua.
Interesen ordainketa: mugaegunean.
Errentagarritasunaren finkatze-mailak: %5, %10 eta %15.

Eskaintza honek balio du 2007ko maiatzaren 18a bitarte edo jaulkipena bete arte

nire aukera

NAFARROAKO RURAL KUTXA

www.ruralvia.com
Tel: 902 310 902

MALERREKA

# Urrezko Ezteiak eta 85 urte bete dituztenak ekainaren 5ean omenduko ditu Arkupeakek

## Aurtengo besta Gorraizen eginen da

ttipi-ttapa

Ekainaren 5ean eginen da Arkupeak Jubilatu eta Pentsionisten Elkartekoen besta haundia, aurtengoan Gorraizen. Egun horretan, Urrezko Ezteiak, hau da, 50 urte ezkondurik betetzen dituztenak eta 85 urte bete dituztenak omenduko ditu Arkupeak elkarteak, eta bide batez, elkartearen XXI. urteurrena gogoratuko dute.

Aitzineko aldietako joerari jarraiki, egitarau bertsua prestatu dute. Aldaketa bakarra, aurten besta Gorraizen izanen dela, meza bertako Eliza Berrian 11:30ean eta bazkaria Gorraizko Gazteluan. Izen emateko epea maiatzaren 3an akitzekoa da, 12:00etan.

### BERTIZARANA

#### BERTIZARANA BAI



**Itziar Uharte Garmendia**

2. Jose Javier Nosellas Zabalegi. 3. Kariñe Elbir Kastresana Palacios. 4. Mª Begoña Ezkurra Mata. 5. Ioseba Xabier Iaben Soltxaga. 6. Juan Jose Gorosabel Irigoien. 7. Iñaki Txokarro Fernandez.

#### Bert. ELKARTALDEA



**Andres Etxenike Iriarte**

2. Blas Mari Andresena Etxeberria. 3. Julian Salaberri Bulman. 4. Estrella Barrenetxe Lertxundi. 5. Aitor Zelaieta Mikelarena. 6. Asier Irisarri Martiarena. 7. Iban Urriza Arretxea.

#### EAE - ANV



**Jose Javier Indabere Otxandorena**

2. Amaia Altube Arrastio. 3. Maria Iñarrea Irurueta. 4. Jesus Mª Arrastio Larraburu. 5. Fernando Trueba Diez. 6. Maria BegoñaPovedano Arrola. 7. Julen Anso Zelaieta.

### ITUREN

#### EA



**Miguel Angel Petrirena Azpiazu**

2. Jose Iparragirre Altamira. 3. Mª Cristina Elena Apeztegia Saldias. 4. Patxi Altxu Iparragirre. 5. Jose Mª Gorosterrazu Elizalde. 6. Eusebio Elizalde Mariezkurrena. 7. Teresa del Niño Jesus Mikeo Gamio.













Artesiagako Magnesita

## Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua

Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.



## ARESO

# Hasi dira Elutsederreko obrak

Udalak jasoko duenarekin proiektua finantzatua gelditu da

Juana Mari SAIZAR

Elutseder Industrialdea handitzeko obrak hasi dituzte, eta Sukia enpresa gipuzkoarra ari da horretan. Izan ere, enkantera atera ondotik bere eskaintza aukeratu zuen Udalak. Aurreikusi dutenez, lanak 20 hilabete barru bukatuko dira, eta atzerapenik balego, enpresaren gain joango dira.

Eraikiko diren 60.000 metro koadro berrietatik, Udala 20.000 ingururekin geldituko da. Aipatu, 20.000 horietatik 11.000 Sena enpresari saldu dizkiola (8.400 eraikigarriak), eta trukean 1.575.000 euro eskuratuko dituela. Gainontzeko lur eremua Sukia enpresarentzat izango da. Obrak guztira 7 milioi inguru euroko kostua izango du eta Udalak 560.240,963 euroko dirulaguntza jasoko du. Udalak guztira jasoko duenarekin egitasmoa erabat finantzatua geldituko da.



**Ebakuntza eta erreabilitazioa egin ondotik, Asperekin entrenatzen hasi da Mikel Olazabal.**

### ARESO ERAIKIZ



**Mikel Baraibar Garmendia**

2. Igor Arraiago Goikoetxea . 3. Jaione Olazabal Caballero. 4. Miguel Eraso Goikoetxea. 5. Ignacio Baraibar Garmendia. 6. Miguel Mª Begiristain Madoz. 7. Ur Algero Chivite.

### EAE-ANV



**Josefa Marzol Tolosa**

2. Julio Nieto Baranda. 3. Ione Lozano Miranda. 4. Ramon Alguero de Val. 5.Jose Otermin Etxarri. 6. Arkaitz Nieto Caballero. 7. Luis Miguel Nieto Baranda.

### CDN



**Milagros Oreja Arraiago**

2. Juana Arribillaga Sasiain. 3. Josefa Antonia Onsalo Treku. 4. Ruben Ibero Zunzarren. 5. Mª Begoña Paternain Larrañeta. 6. Marta Lopez Goñi. 7. Martin Caballero Lasarte.

## ERATSUN

# Retegi II.ak Galartza III.aren aurka 1993an jokatutako finalari buruzko liburua kalean

«Banaka. Final handi baten anatomia» da libururuaren izenburua eta Iñaki Bidegainek egin du

ttipi-ttapa

Pilotaren historiako partidu garrantzitsuenetako batek badu liburua, eta herriko protagonista batekin, gainera. «Banaka. Final handi baten anatomia» izenburupean, Julian Retegi eta Ladis Galartza protagonista dituen eleberria Iñaki Bidegainek egin du, eta Jexux Zubiriak euskarara itzuli.

1993an Retegi II.ak eta Galartza III.ak elkarren aurka jokatu zuten azken eskuz banakako finalean gertatu dena aztertzen da liburuan, finalaren inguruan gertatu zena. Liburua apirilaren 23an aurkeztu zuten Bilbon, eta ekitaldian esan zutenez, pilotaren esparru hori lantzen duen lehen eleberria da.

Bestalde, aipatu, liburuaren salmentarekin ateratzen diren dirusarrera guztiak Gipuzkoako ASPACE Elkartearentzat izanen dela, buruko gaixotasuna duten afizionatuen arteko eskuz banakako torneoa antolatzeko.



Utzitako argazkia

**Liburuko bi protagonistak Retegi II.a eta Ladis Galartza dira.**

### ERATSUN

#### IRUÑARRI

1. Pedro Antonio Deskarga Elizalde. 2. Fco Mitxelena Bazterrika. 3. Francisco Maria Telletxea Kerejeta. 4. Juan Fermin Grazenea Aldaia. 5. Manuel Retegi Arano.

### SALDIAS

#### INDEPENDENTEAK

1. Pedro Urrutia Grajirena. 2. Sebastian Ezkurra Etxekolonea. 3. Gabriel Urrutia Aizeaga. 4. Julian Erasun Erasun. 5. Francisco Javier Zubeldia Huizi.



## ABERASTASUNA

→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniaritza, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea.

→ Baztango gazteriari **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bilatzeko bertze eskualdetara joan behar izatea saihestuz.

## INGURUGIROA

→ Artesiagako Magnesitarekin lurzoruak eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarriztatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ **Ingurumen kalitatearen kontroleko filtro bikoitza** pasa beharko du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiarik aurreratuena ingurumenaren zerbitzura**. Uhal garraiatzailen karenatzeak, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoak bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.



## ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesitak errelebua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.



→ **Epe ertain eta luzerako proiektua**. Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epea bermatzen du, baina balleko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jarduera atxikitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.

Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

www.magnesitadeartesiaga.es

GOIZUETA

# Txinoko festa larunbat honetan izanen da

## Ostiralean, berriz, mus txapelketa jokatuko da

**Esteban AROTZENA**

Ehunka lagunen herri bazkaria, herri-kirolak, kontzertuak, bertsolariak… Orain hiru urte gazte talde bat hasi zenean erdi brometan Txino auzoko festa antolatu behar zela esaten, ez zuten asko pentsatuko jai honek egun duen indarra izanen zuenik. Aurtengo edizioa larunbat honetan, hilak 5, ospatuko da, eta programa ederra hornitu dute Gazte Asanbladakoek: 12etan botako da txupinazioa, eta ondotik, buruhaundien eta txistularien kalejira. Gero, koruaren emanalditxoa eta bukatutakoan, herri-kirol jaialdia: ahari-apustuak, trontzalariak eta Aimar Irigoien eta Barrenetxea harrijasotzaileen arteko desafioa.

15:00etan hasiko da herri bazkaria, Silveira, Ministro eta Barandiaran bertsolariekin. Txartelak salgai daude Amaiarenean (948 514242). 18:30ak aldera Zpeizmukaki dantza taldearen emanaldia izanen da, eta ondotik, Esne Beltza, Xabier Solano, Iban Zugarramurdi eta beste euskal talde ezagunetan ibilitako hainbat musikarik osatuko talde berriaren kontzertua hasiko da. Handik aurrerako musika Zigor eta Bela Dj-en esku egonen da. Bezperan, berriz, auzoko Zubiondo tabernak antolatutako mus txapelketa, premio ederrekin.

**UNAMA MUSIKA TALDEA.** Kontrasteak estimatzen omen ditu jendeak, eta Txinoko erromenaren ondotik, emanaldi lasaia antolatu da hilaren 12rako, Lapurdiko Unama taldeak joko baitu Ganbaran.



ARGAZKIA: ELI SALABERRIA

***Labadero zaharra berritzen***

**Udala eta bolondres talde bat labadero zaharra berritzen ari dira azken aste hauetan. Egun gutxiren barrenean ikusgai egonen omen da, argiteri polit askiaz apaindua gainera.**



ORAIN DELA...

### 15 URTE

• 1992an, garai honetan, Don Bixente Hernandorena apeza herriaren borondatearen kontra Orreagako monastegira eraman zuen Iruñeko apezpikuak. 23 urte zituen herrian eta oso maitea zen. Trasladoaren kontra herritarrek idatzia bidali zuten apezpikura

### EAE-ANV



**Miguel Jose Lekuona Salaberria**

2. Aitor Mendezabal Erasun. 3. Xabier Etxegia Loiarte. 4. Fernando Goia Eskudero. 5. Esteban Arotzena Mitxelena. 6. Mª Josefa Aizpurua Santesteban. 7. Mª Josefa Osa Zelaia.

### ELKARTASUNA



**Jon Uitzi Lujanbio**

2. Daniel Oiarzabal Larraburu. 3. Jose Ignacio Alsua Eskudero. 4. Agustin Eskudero Taberna. 5. Pedro Salaberria Zubiri. 6. Mª Paz Narbarte Salaberria. 7. Mirari Etxegia Perurena.

### G. ABERTZALE SOZIALISTAK



**Gorka Irazusta Lujanbio**

2. Xabier Miker Uitzi Salaberria. 3. Eneritz Arotzena Zugarramurdi. 4. Mª Jose Albistur Huitzi. 5. Mª Mercedes Huitzi Anton. 6. Joseba Xabier Ansa Zubieta. 7. Igor Elizegi Erbiti.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
artekari@artekari.com
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

LEITZA

# Asketa abesbatzako gazteak Katalunian



## Hiru egunetan bi kontzertu eskaini zituzten

**Joseba URKIOLA**

Bazko Asteko oporraldia apobetxatuz, Leitzako Asketa abesbatzako gazteak Kataluniara joan ziren. Kantua eta euskara oinarri nagusitzat hartuaz, hiru egunetan bi kontzertu eskaini zituzten mediterraneoko lur preziatuetan.

Dena den, dena ez zen lana izan eta Asketakoek, aisiaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Horren adibide, Igualada eta Bartzelonako lurretan egin zituzten espedizioak.

### *Etxebarriarentzat aurtengo krosa*

Apirilaren 15ean jokatu zen Leitzako Herri Krosaren 29.edizioa. Aurtengoan Antonio Etxebarria iruindarrarentzat izan da garaipena. Berak eginiko denbora 31 minutu eta 19 segundukoa izan zen. Lehena helmugaratu zen herritarra, Iñigo Irazoki izan zen.

Aipatu, aurtengoan ere parte hartzaileek ezin izan zutela Andres Perezek orain urte batzuk ezarritako 29 minutu eta 49 segunduko marka hobetu.Heldu den urtean, Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen kirol ekitaldi honek 30 urte beteko ditu.

### *11 talde Futbol Txapelketa*

Hasi da 2007ko herriko kuadrilen arteko Eskolatako Futbol Txapelketa. Aurten, 11 taldek eman dute izena eta guztiek guztien aurka jokatu beharko dute lehen fasean. Aurrera igaroko direnak sailkapeneko lehen zortziak izango dira.

**ARALAR**



**Pakita Zabaleta Zabaleta**

2. Fermin Anzizar Ibarra. 3. Margarita Zabaleta Zabaleta. 4. Patxi Zabaleta Zabaleta. 5. Ernesto Leiza Urrestarazu. 6. Guillermo Ibarrola Apeztegia. 7. Edurne Almandoz Goñi. 8. Jesus Mª Barrena Arellano. 9. Juan Jose Garcia de Acilu Goiatxe. 10. Aingeru Etxeberria Juaniz. 11. Patxi Oronoz Zabaleta.

**EA**



**Aitor Etxarri Pellejero**

2. Luciano J. Olano Billabona. 3. J. Fernando Garcia Duadet. 4. J. Miguel Arraras Baraibar. 5. Nerea Egues Carrera. 6. Jesus Perurena Loiarte. 7. Fco Javier Otermin Uharte. 8. Mª C. Agirre Zubitur. 9. Miguel J. Sagastibeltza Sagastibeltza. 10. Mikel Mtnez. Barranko . 11. Ana Mª Garaikoetxea Garaikoetxea.

**EAE-ANV**



**Jaione Astibia Astibia**

2. Maria Azpirotz Hernandorena. 3. Juana Mª Barriola Gogortza. 4. Tomas Azpirotz Alkotz. 5. Pedro Mª Canflanca Ezkurra. 6. Ainara Gastearena Erregerena. 7. Igon Bereau Urroz. 8. Ainhoa Viguera Ijurko. 9. Luis Mª Arraras Usabiaga. 10. Mª Colores Gonzalez Arraras. 11. Juan Jose Casares Pinzolas.

**L. ABERTZALE SOZIALISTAK**



**Heleni Zabaleta Urkiola**

2. Jose Mª Ignacio Azpirotz Lasarte. 3. Mª Angeles Zestau Baraibar. 4. J. Vicente Usabiaga Arregi. 5. Mª Lourdes Juantorena Baleztena. 6. J. Javier Sestorain Zabaleta. 7. MªTeresa Sarobe Mitxelena. 8. Mikel Illaregi Elberdin. 9. Miren K. Lazkano Sestorain.10. Eneko Astibia Teiletxea. 11. David Anaut Peña.

**UPN**

**Jose Miguel Goikoetxea Zabaleta**

2. Silvestre Mª Zubitur Goñi. 3. Mª Teresa Artola Etxeberria. 4. Pedro Urkiola Zestau. 5. Pedro Juan Larralde Cerezales. 6. Gerardo Caballero Azpiroz. 7. Jose Alvarez Diaz. 8. Fermin Azpirotz Martinikorena. 9. Mª Micaela Billabona Olano. 10. Juan Mª Zubitur Billabona. 11. Daniel Mugika Zubeldia.






lanbideheziketa
KALITATEKO PRESTAKUNTZA · ENPRESARENTZAKO BERMEA · LANBIDE ETORKIZUNA
IZENA EMATEKO EGUNAK
Erdiko Maila, maiatzaren 10etik 21era bitarte
Goiko Maila, maiatzaren 17tik 28ra bitarte
Nafarroako Gobernua

nafar PRES

Asociación Navarra de la Prensa Local
Nafarroako Tokiko Prentsaren Elkartea



# 38.000 ale Nafarroako bazter guztietan







**Aldapa / Auzolan / Donibane / Ibaialde / Ostoki**

IRUÑEA, BURLATA, UHARTE, ATARRABIA, ANTSOAIN



**Ttipi-ttapa**

BAZTAN, BORTZIRIAK, LEITZALDEA, MALERREKA



**La Voz de la Merindad**

TAFALLA ETA ESKUALDEA




**Entreto2 Tierra Estella**
**Entreto2 Valdizarbe**

LIZARRALDEA, ITZARBEIBAR




**Guaixe**

SAKANA



**Plaza Nueva**

NAFARROAKO ERRIBERA, ERRIOXA BEHEA ETA ALFARO, SORIA (AGREDA ETA OLVEGA), ARAGOIKO ESKUALDEAK (CINCO VILLAS,MONCAYO ETA TARAZONA)



**Mailope**

LARRAUN, LEKUNBERRI, ARAITZ, BETELU



**Mendixut**

PIRINIOAK (ERRONKARI, ZARAITZU, AEZKOA, NABASKOZE, ERRO...)

Antso Azkarra 26, 9. bulegoa · 31008 · Iruñea · Tel. 948 10 14 37 · info@nafarpres.com











# Iruritako




## asteazkena 16 bezpera

| | |
|---|---|
| 12:00 | **Altxaferoa**, Kalejira Baztango Gaitariekin. |
| 16:30 | Haurrendako **marrazki lehiaketa** edo **pelikula**. |
| 20:30 | **Ezkil-Jotzea**. |
| 21:30 | **Baztan Zopak**. |
| 24:00-04:00 | SALABERRIrekin **Dantzaldia Karpan.** |




## ortzeguna 17 salbatore egune

| | |
|---|---|
| 10:00 | Kalejira Baztango gaitariekin. |
| 11:00 | **Meza Nagusia** (Elizako kantariekin). |
| 12:00 | Herriko dantzarien erakustaldia. |
| 13:00 | Herrikoentzat **hamaiketakoa**. |
| 18:00 | Goitibehera lasterketa. |
| 20:00-22:00 | Dantzaldia **LAIOTZ** taldearekin. |
| 22:00 | Mutildantzak, ondotik dantza herrikoiak Baztango gaitariekin |
| 24:00-04:30 | Dantzaldia **LAIOTZ** taldearekin. |

## ortzileria 18 haur eta jubilatuen egune




| | |
|---|---|
| 10:00 | **Kalejira** Baztango gaitariekin. |
| 11:00-13:00 | Haurrendako jokoak errebote plazan. |
| 14:00 | Haur eta jubilatuendako bazkaria Gazteen bazkaria Baigorrin. |
| 15:30 | Haurrendako **jokoak**. |
| 18:30 | Batukada. |
| 19:00 | Txokolate-jatea. |
| 20:00-22:00 | Dantzaldia **EGAN** taldearekin. |
| 22:00 | Mutildantzak, ondotik dantza herrikoiak Baztango gaitariekin |
| 23:00-24:00 | Kontzertua **KALAPITE** taldearekin. |
| 24:00-04:30 | ondotik dantzaldia **EGAN** taldearekin. |

# bestak 07
## maiatzaren 16tik 20ra





### larunbata 19

| | |
|---|---|
| 11:30 | Haurrendako Triko Toro. |
| 12:00 | **Kalejira** txarangarekin. |
| 14:00 | **Herriko bazkaria.** |
| | Bertsolariak: Amets Arzallus eta Sustrai Kolina. |
| 18:00 | Aranabiko XII txapelketaren finalak. |
| 20:00-22:00 | Dantzaldia **GAUBELA** taldearekin. |
| 22:00 | Mutildantzak, |
| | ondotik dantza herrikoiak Baztango gaitariekin |
| 24:00-04:30 | Dantzaldia **GAUBELA** taldearekin. |







### igendia 20

| | |
|---|---|
| 11:00 | Meza Nagusia. |
| 12:00 | Mus ‘Tximiste’. |
| 12:30 | Txarangarekin kalejira. |
| 14:00 | Ausartendako zinger eta txistor jatea Baigorrin. |
| 18:00 | **Larratz dantza** taldearen erakustaldia. |
| 20:00-22:00 | Dantzaldia **JOSELU ANAIAK** taldearekin. |
| 22:00 | Mutildantzak, |
| | ondotik dantza herrikoiak Baztango gaitariekin |
| 22:30-01:00 | Dantzaldia **JOSELU ANAIAK** taldearekin. |


**BAZTAN** zurgindegia

- Kanpoko ate eta lehioak: egurra, PVC eta aluminioan
- Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- Armairu enpotratuak
- Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK

Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210



pintatze lanak
pladurra
isolamenduak

Angel V.
tlf. 629 317 086

# Urdazubiko



## asteazkena 16 bezpera

| | |
|---|---|
| **20:00** | Txupinazoa |
| **22:00** | Lehen, bigarren eta hirugarren adineko jendearentzako afari berezia Karretero Ostatua. |
| **Ondoren** | **MODESTO**rekin Dantzaldia Karpan. |

## ortzeguna 17 Salbatore eguna

| | |
|---|---|
| **11:00** | Meza Nagusia. |
| **12:00** | Herriko pilotalekuan **aperitiboa**, ZAZPIAK BAT dantzari taldearekin eta Gaiteroekin. |
| **16:00** | Eskuzko **pilota** partidak. |
| **17:00** | **Haurrentzako jokuak** Jokulandiarekin. |
| **22:00** | Paella afaria |
| **Bitartean** | **KIKI BORDATXO** taldearen animazioa. |













## ortzileria 18

| | |
|---|---|
| **12:00** | **Futbol partida.** Ezkonduak - Ezkongabeen aurka. |
| **13:30** | UGARANA elkartearen bazkaria Koska ostatuan. |
| **14:00** | **Dianak** Dantxarineako auzoetan. |
| **17:30** | **GORRITI** eta bere animaliak. |
| **19:00** | Dantzaldia **TAPIA eta LETURIA** taldearekin. |
| **21:00** | **Sagardotegi mugikorra.** Lopetegi ahizpak trikitilariak. |
| **00:00** | Dantzaldia **KUPELA** taldearekin. |




































# bestak 07
## maiatzaren 16tik 20ra



### larunbata 19

| | |
|---|---|
| **10:00** | **Kontrabandisten** lasterketa. |
| **12:00** | Nafarroako **sokatira** txapelketa 4x4 finala. |
| **14:00** | **Zikiro Jatea**, txaranga eta bertsolariekin. |
| **Ondotik** | kalejira herrian barrena. |
| **17:30** | **Haurrentzako jokuak** Jokulandiarekin. |
| **20:00-04:00** | Dantzaldia **OROTS** taldearekin. |



### igandea 20

| | |
|---|---|
| **16:00** | Herri Kirolak. |
| **Arratsaldean** | Dantzaldia **JOXE ANGEL** akordeolariarekin. |
| **17:00** | Ikuskizuna **Joxe Bikondoa** aizkolariarekin. |
| **18:00** | **Urezko** zezena. |
| **19:30** | Rifen **zozketa**. |
| **21:00** | Herriko **besten bukaera**. |
| **22:00** | Besten bukaerako **afaria**. |





Benta • Ostatua • Jatetxea
MIKELENBORDA
Ongi pasa bestak!!
Tel: 0034 948 599 045
31712 DANTXARINEA

ROSA MENTABERRI
ileapaindegia
Lapitxuri merkataritza zentroa • DANTXARINEA
Tfnoa: 948 599 129

Josune
ileapaindegia
gizon eta emakumeentzako
948 599 028 • URDAZUBI

Iñaki Alzuiet margoak
Fatxadak
Barnealdeak
Dekorazioa (estuko, beladurak...)
Pladurra
Lakatua eta barnizatua kabinan
Karrietea Etxea · Landibar Auzoa
31711 URDAZUBI
Tfnoa: 659 862 417

ARRETXEA BENTA
Tabakodenda • Janariendenda
Jantzidenda • Zapatadenda
Tel.: 948 599 018 • Faxa: 948 599 015
DANTXARINEA
ESTAZIO ZERBITZUA
Tel.: 00 34 948 599 250
DANTXARINEA

MERKATU TTIKIA
zure iragarkia 3 tokitan
Aldizkaria + Telebista + Internet
8€
ttipi-ttapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

Gurutze Ariztia
harategia
DANTZARINEA
Tfnoa 948 599 008

SOLARIUM
Ximera
Asteartetik Larunbatera
9:00-13:00 / 14:30-19:30

Benta Peio • 31712 Dantxarinea
Tfnoa: 948 599 062

Xareta OSTATUA
on egin janak eta kalterik ez edanak
BESTA EDERRAK PASA
Dantxarinea • URDAZUBI • T. 948 599 496


IRIGOIENEA
www.irigoienea.com • reservas@irigoienea.com

PULPERIA BENTA
Janaridenda - ostatua
Besta ederrak pasa!
☎ (0034) 948 599 046 • DANTXARINEA

INTERVIDEO Fotolab
Merkatuko preziorik onenak
Ordu batean errebelatua
Dantxarinea • LANDIBAR Merkataritza gunean
Tfnoa: 948 599 497 • 948 599 055

BVRKAITZEA
• OSTATU
• ERRETEGIA
ONGI PASA !
Zugarramurdiko bidea
URDAZUBI
948 599 280

Angel BENGOETXEA
eraikuntzak
Era guztietako argin lanak
Etxeak eskura egiten dira
Zeramika denda
948 599 484 • URDAZUBI


Nafarroako Gobernua
Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Zentru Europarra
cein
Zure Ideiak Aurrera Doaz
Hazi nahi duzu?
Zure indarrak beste enpresa batzuekin batzea pentsatzen ari zara?
Zure enpresa, merkatuan indartsuagoa izatea nahi baduzu, HAZTEN lagunduko dizun enpresen arteko lankidetza proiektua jarri du martxan CEINek.
Nahi izanez gero, aholkularitza pertsonalizatua eta prestakuntza berezia jasoko dituzu eta, gainera, kide aproposa lortzen lagunduko dizugu.
ZATOZ informazio saioetara eta zure indarrak batuz HAZI. Ongi datorkizun saio hauetakoren batean izena eman besterik ez duzu egin behar: apirilaren 26an eta maiatzaren 10ean eta 24an.
Informazio gehiago eta izena ematea 848 426 014 telefonoan edo cooperacion@cein.es helbidean.
www.cein.es
Indarrak batuz hazten gara
Enpresen Arteko Lankidetza Zerbitzua


ttipi-txartela 2007
ttipi TXARTELA
=
aldizkaria doan
+
urtean 40€
39 komertziotan deskontuak
BERAUTO • ZALAIN MOTOR• KATEA BIKE • DATUCELAY
SANSIÑENA • SEMPER • GOIKO • AYLA • MENA
ZALDUA • EDURNE • J.J PIKABEA • KATTALINGORRI
IPINGI • FANTXIKE • BIXKIAK • ALUSTIZA • AMAIA
IPARLA • ZELA • AGARA • MARICRUZ • DEÑE
NAFARPRESS • MAIMUR • OSTARGI • ARGIBEL
MENDAUR • JAIONE • KALOTXA • OSTIZ • TXIÑELKA
ETXARTE • ALTZURI • POTTOKI
deitu eta egin zurea!! 948 635 458


LANDIBAR AUZOAN
URDAZUBI - NAFARROA
Otordu handiak - Famili bilerak
Ugarana jatetxean
Kinto bestak - Koadrila afariak
Despedidak...
Kupela sagardotegian
Trago eta pintxo goxoak
Mikela ostatuan
Besta, saltsa eta dantza...
La Nuba diskotekan
Etorri, probatu eta gozatu
Erreserbak:
(0034) 948 599410

BAZTAN

# Gorramendiko base militar amerikarreko azken hondarrak desagertzear daude

Garbitze lanak 120.000 euroko aurrekontua du eta Baztango Udalak La Caixarekin sinatu berri duen akordio baten bidez finantzatuko da

**Maite OTEIZA**

Gorramendin 20 urtez (1954-1974) egon den basea erabat desagertuko da egun hauetan. Baztandar aunitz oroituko da orduko kontuetaz eta, agian, egunotan etxeko gazteenei kontatuko diete hainbat kontu.

Duela urte batzuk Udala Espainiako Defentsa Ministerioarekin harremanetan jarri zen, garbiketa Gobernuak egin zezan, baina negoziazioek huts egin zuten. Halere, bigarren aukera bat sortu zen, eta Udalak La Caixarekin sinatutako akordio baten bidez, garbiketa lanak egiten ari dira. Obraren aurrekontua 120.000 eurokoa da.

### *Berroetako urak Oronozera*

Baztango Udalak Berroetako Xubindo errotako ura erabiliko du Oronoz-Mugairiko ur arazoak direla-eta. Azken urteotan oronoztarrek ur eskasia izaten dute udan. Gabezia horiek konpontze aldera, errotako jabeekin harremanetan jarri eta akordio batera ailegatu ziren. Horren arabera, 4,93 litro ur hartuko dira segunduko eta Errontondoko iturburura bidaliko da ura.

Bertzalde, Lekarozko arazoak konpontzeko, Beltxuriko errekatik ura hartzeko aukera aztertuko dela iragarri dute.

**B. ABERTZALE SOZIALISTAK**



**Begoña Etxandi Juanikotena**

2. Nora Salbotx Alegria. 3. Xabier Ospital Agerrebere. 4. Xabier Torres Letona. 5. Ivan Iparragirre Arburua. 6. Lourdes Andueza Oskotz. 7. Mikel Alzuart Zaldain. 8. Itxaso Aleman Danboriena. 9. Xabier Ballarena Iturburua. 10. Teresa Inda Jimenez. 11. Jose Luis Retegi Iturbide. 12. Teresa Almandoz Egaña. 13. Leoncio Irungarai Elizalde.

**EAE-ANV**



**Julen Mitxeltorena Mitxeltorena**

2. Mª Carmen Irungarai Aleman. 3. Ernesto Prat Urzainki. 4. Elixabete Aranburu Lertxundi. 5. Isaac Rekalde Irigoien. 6. Koldo Uribe-Etxebarria. 7. Karmele Etxandi Karrikaburu. 8. J. Ignacio Etxamendi Lazaro. 9. Belen Uharte Ugarte. 10. Pello Obregozo Istilart. 11. Imanol Etxeberria Antxorena. 12. Tere Iturburua Etxandi. 13. Fco. Larralde.

**NAFARROA BAI**



**Virginia Aleman Arrastio**

2. Santiago Aldako Aleman. 3. Martin Garde Saharrea. 4. Agustin Olabe Oskaritz. 5. Rakel Goñi Lakar. 6. Remigio Lizasoain Adansa. 7. Jon Dufurrena Iñarrea. 8.Carlos Garaikoetxea Etxenike. 9. Izaskun Etulain Iturralde. 10. Mirentxu Oiarzabal Irigoien. 11. Miguel Angel Garaioa Muñoa. 12. Irene Hualde Zabaleta. 13. Patxi Oiarzabal Irigoien.

**UPN**



**Begoña Sanzberro Iturriria**

2. Eduardo Etxabarri San Miguel. 3. Leopoldo Jaen Sobrino. 4. Mª Carmen Iribarren Iribarren. 5. Isabel Bidart Santxotena. 6. Jose Mª Garmendia Arizmendi. 7.Miguel Angel Aldea Larunbe. 8. Angel Martin San Matias. 9. Begoña Iriarte Iparrea. 10. MªCarmen Irigoien Sarratea. 11. Anastasio Nagore Garralda. 12. Jose Motos Izeta. 13. Rosa Irungarai Meoki.













BAZTAN

# Azpilkuetako errepide berria inauguratu dute

## Bordakoetxea Jauregian hotela egiteko obrak hasi dira

Maite OTEIZA

Apirilaren 20an inauguratu zuten Azpilkuetako errepide berria. Ekitaldian izan ziren, bertzeak bertze, Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio, Komunikabideetako kontseilaria, Baztango Udaleko zinegotziak eta Jon Alkasena, Azpilkuetako alkatea.

Azpilkuetarrek aspaldi ari ziren Ikatzateko bidegurutzetik (N-121 B) herrirat doan errepidea (NA-4457)zabaldu eta moldatzeko eskatzen. Bide estua zen eta bi ibilgailu gurutzatzeko larri ibiltzen ziren, batez ere autobusa edo kamioak tartean zirenean. Eraberritzearen ondotik, 1,5 metro baino gehiagoko zabaltasuna eman diote eta pare bat kurba ere moldatu dituzte.

Proiektuaren aurrekontuan 268.000 eurokoa izan da eta lanak Mariezkurrena enpresak egin ditu.

Bertzalde, azken boladan Belateko tunela urte batez obrak egiteko itxiko den zurrumurruari erantzunez, Mirandak zurrumurruak gezurtatu egin zituen.

### Erdizera bisita

Magnak Erdizen egin nahi duen harrobiaren kontrako ekintzen barnean, eta jendeak paraje hau ezagutzeko aukera izateko, mendi ateraldia antolatu zuten Baztango Mendizgoizaleek eta Erdiz Bizirik plataformak apirilaren 22an.

Bi ateraldi egin ziren: lau ordukoa bat (Negusaroi-Negusaroi), eta bi ordukoa bertzea, batez ere familiak haurrekin gateko (Artesiaga-Negusaroi).



ARGAZKIA: JOSEFA BEGORRE

**_Carmen erratzuarra eta Maria zarauztarra irabazle San Frantziskoko (Kalifornia) mus txapelketan_**

**Hemen ez ezik, mus txapelketak egiteko ohitura handia dago Ameriketan dauden baztandarren artean. Maiz egiten dira mus txapelketak. Horietako bat, San Frantziskoko Euskal Etxean egin zen berriki eta 53 bikotek parte hartu zuten. Irabazleak Zarauzko Maria A. eta Erratzuko Carmen Arriada izan ziren. Zorionak bikote!**

Lurraren Nazioarteko Eguna ospatzen zen egunean, eta eguraldiaren laguntzarekin, 150 pertsona inguru bildu ziren. Ibilaldiaren ondotik, antolatzaileek pintxoak eta edari freskoa banatu zituzten partehartzaile guztien artean. Erdiz Biziriken materiala saltzeko postu bat ere paratu zuten.

### Amaiurko Bordakoetxea hotela

Hasiak dira Bordakoetxea Jauregian hotela egiteko lanak. Amaiurren urteetan Guardia Zibilaren kuartela izan zen Bordakoetxea Jauregia, denbora luzez enkantean egon zen, Kataluniako enpresa batek hotela egiteko erosi zuen arte. Obrak Lesakako «Bikain Eraikuntzak» enpresak eginen ditu.

### Iñaki Villoria txapeldun Palentzian

XXI. Fromistako (Palentzia) Txapelketan, Iñaki Villoria iruritarrak txapela jantzi du, Europa masterrean txapeldun izandakoaren aitzinetik, gainera. Javier Mariñelarena sunbildarra, berriz, seigarrena izan zen. Bata zein bertzea, 30 urtekoen mailan. Iruritarrak denboraldiko lehen saioa zuen, neguan belauneko ebakuntza izan ondotik, baina ikus daitekeenez erabat osatu da. Bertzalde, Javier Meoki elizondarra laugarren helmugaratu zen 40 urtekoendako mailan, master eta beteranoendako proban. Aipatu, Villoria, Meoki eta Mariñelarena, hirurak ere Scania taldean ari direla.















EZKURRA

# Neguan elurteei, eta udan lehorteei aurre egiteko neurriak hartu beharko ziren

Udaletxean ez dago herritarrentzako Internetik, ez faxik ezta posta elektronikorik ere

Fernando Etxeberria

Aurreko alean herriko hainbat gabezia aipatzen genituen. Oraindik ere bada zer esanik. Beste udaletxeetan herritarrek teknologia tresnak eskura dituzte. Hemen, noiz arte Internet, faxa eta posta elektronikorik gabe?

Gazte asko herritik kanpo joan da bizitzera, hemen ez dagoelako pisuak egiteko erraztasunik. Ez daukagu herri barruko antolamenturik, eta norbaitek herri inguruan edo at bizi nahi badu 1.500 metroko lurra lortu behar du.

## *Azpiegiturak*

Herrian elur garaian sortzen diren arazoak konpontze aldera, traktore bati pala jartzeko aukera aztertu behar da, elurra kentzeko. Gisa berean, adituek diotenez, datozen urteak oso lehorrak izanen dira. Hemen oraingoz ur faltarik ez dugu, baina egun larriak azaldu baino lehen erabaki batzuk hartu beharko genituzke.

Bestalde, argi indarren kableak lur azpian sartzea ere Iberdrolarekin adostu behar da, eta behar izanez gero, argi gehiago ere jarri kalean.

**IDOIA**

1. Pedro Mª Zestau Juantorena. 2. Martin Gastearena Balda. 3. Julian Gogorza Jauregi. 4. Miguel Mª Lasarte Mariezkurrena. 5. Jesus Mariezkurrena Telletxea.



## URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Sorginkeriaren Museoa kudeatzeko langilea hartuko da

### Antolakuntza orokorra, komunikazioa eta promozioaz arduratuko da

**Koro eta Margari**

Sorginkeriaren Museoa martxan jartzeko bertze pausu bat emana da: langileria kontratatzeko deialdia egin da. Momentuz Museoa kudeatzeko zuzendari bat kontratatu nahi da, hauek egiteko: antolakuntza orokorra, komunikazioa, promozioa, eta kultura eta turismoa dinamizatzea. Lanpostu honetarako izena emateko epea apirilaren 30a zen, beraz, berri hau idazterakoan oraindik ez genekien zenbatek eman zuen izena.

### *Udaberriko bira*

Aurtengo Udaberriko birako ekitaldi bat izan genuen Zugarramurdin gan den apirilaren 23an: Malaspulgas taldeak «Cyrano» antzezlana eskaini zuen Ospitaleko antzokian.

### *Zodiakoaren zeinuei buruzko azterketa*

Zodiakoaren zeinuei buruzko azterketa egin du Margari Etxenikek Zugarramurdin bizi direnen artean. Denetara 277 lagunen sortze datak begiratuz, hauxe da agertu zaiona: gehien errepikatzen den zeinua Eskorpio da (39 aldiz) eta ondotik, Leo heldu da (35); guttien direnak Aries (12) eta Capricornius (13) dira. Zer erran nahi du honek? Gehiengoak, Eskorpio, izaera azkarrekoak direla, borondate haundikoak, askatasuna maite dutenak eta apasionatuak; alde txarrean jeloskorrak eta gorrototsuak direla, zodiakoaren araberan, klaro.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### *Frontoiaren inaugurazioa*

**Apirilaren 14an Urdazubiko frontoi berria inauguratu zen. Lehenbizi bedeinkapena izan zen aurreskuarekin batera. Ondotik esku-huskako bi partidu izan genituen: jubeniletan Ollo-Madariagak Etxaide-Iriarteren kontra 22-21 galdu zuten, eta afizionatuetan, Renobales-Landiribar-ek 22-17irabazi zieten Ontsalo-Orozi. Ondotik aperitifa egin zen**

Azterketa honetatik bertze datu bat ere agertu zaio: azaroaren 1a dela jende gehien sortu den eguna (5 lagun), eta ondotik martxoaren 1a (4 lagunek).

### *Urdazubiarrak sagardotegian*

Bi aste lehenago Ugarana emakume elkartekoek egin bezala, martxoaren 24an herriko gazteak Urnietako sagardotegi batera joan ziren.

Ederki afaldu ondotik, Hernaniko gau giroa gozatzeko aukera izan zuten. Pena bakarra ordutegi aldaketa.

#### ZUGARRAMURDI

**AKELARRE**

1. Jesus Mª Agerre Indaburu. 2. Lazaro Dainziart Iribarren. 3. Gonzalo Garmendia Bedialauneta. 4. Evaristo Mentaberri Mihura. 5. Mikel Mitxelena Etxebeste.

#### URDAZUBI

**AZKAR**



**Santiago Villares Otegi**

2. Juan I. Arzoz Erreka. 3. Juan J. Suhas Laurenzena. 4. Itziar Galarregi Blanco.5. Igor Otegi Elizzetxe. 6. Noel Eiheragarai Almandoz. 7. Angel Mª Larralde Ibarrola.

**URTXUME**



**Andres Diharasarri Organbide**

2. Daniel Elizalde Karrika. 3. Miguel Ariztia Etxeberria. 4. Fco. J.Varela Santesteban. 5. Anastasia Bidart Organbide. 6. Martin Mitxelena Bertiz. 7. JMª Ariztia Plaza.


Sukalde eta pinuzko altzariak
TXOKOTAN ADITUAK
MUEBLES FORCADA
Ctra. Gipuzkoa, km 6
BERRIOPLANO (Nafarroa)
☎ 948 303 798

SENPERE

# Anje Duhaldek, Peio eta Pantxoak eta Gatibuk alaituko dute Herri Urrats besta

## Barne ministro ohiak aise irabazi ditu lehen itzuliko bozak

**Franck DOLOSOR**

Ipar Euskal Herri osoko ikastolen aldeko besta maiatzaren 13an ospatuko da aurten. 1984an sortu zen euskarazko irakaskuntzaren aldeko besta honen bidez, dirua biltzen dute bigarren hezkuntzako ikastegiak pagatzeko, bertzeak bertze, Ziburuko kolegioaren alde. Ohiturari jarraiki, aintziraren inguruan animazio andana eginen da milaka lagun biltzeko. Egun osoan, Azikaren txotxongiloak, Afrikako dantzak, Anje Duhalde, Peio eta Pantxoa, Root's System, Gatibu eta Zea Mays taldeak entzun eta ikusi ahal izanen dira.

### Hauteskundeak

Frantziako presidentetzarako lehiak interes haundia sortu du herrian ere. Alde guzietan bezala, Senperen ere partehartze haundia izan zen lehen itzulian (%85,4koa; 2002an, %70,2ekoa izan zen). Giro honetan, **Nicolas Sarkozy** aise izan da irabazle eta %29,1eko emaitza lortu du. Barne ministro eskuindar ohiak 989 boz izan zituen, Jacques Chiracek duela bortz urte baino 467 gehiago. Bigarren tokian, **François Bayrou** zentrista dago %27,2rekin. Biarnesak 264 boz jaso zituen 2002an eta aurten 924 eskuratu ditu. **Sozialistek** ere boz kopurua hobetu dute, baina %18,4arekin hirugarren tokian daude (250 boz 2002an; 625 boz 2007an).

Bertze hautagaiak bigarren lerroan gelditu dira. **Frente Nazionalak** (210 boz) sei boz irabazi ditu bortz urtez baina ez ditu eskuratu Mégret ultraeskuindarrak jasotako 25ak. **CPNT** ehiztarien alderdia bigarren indarra izan zen aitzinekoan (269 boz), baina honetan, 98 paper jaso ditu. **Berdeek** ere bozak galdu dituzte (155etik 85era). 78 bozekin, **José Bovék** beharbada ekologisten zenbait boz hartu izanen ditu. Alderdi Komunistak berdintsu segitzen du (29 boz 2002an eta 32 aurten). **PCF**, berriz, desagertzear da, bere eremua **LCR** jaten baitu. **Olivier Besancenot** postariak 188 lortu ditu, 2002an baino 16 gehiago.





ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

***Herriko kirolariak sasoian***

**Errugbyak kirol nazionala izaten segitzen du herrian. Berriki, 160 haurrek Martin Borthaire lehiaketan parte hartu dute. Bertzalde, pilotari harrobi ona izan da beti Senpere. Geroan ere hala izan dadin lan eta lan ari dira pilotazaleak. Entrenazaileek lan haundia egiten dute biharko pilotari haundiak prestatzeko. Haurrek euren dohaiak erakutsi dituzte orain gutti eta zenbat sari ere irabazi dituzte.**








## EZKONTZAK

**Kenneth Enendu Uzochukwu** eta **Mª Jesus Aroztegi Berrio**, Elizondon, martxoaren 31n.
**Iñigo Torrea Iraizoz** eta **Maider Gartzia Baleztena**, Iruña eta Berakoa, apirilaren 14an.
**Daniel Etxegarai Mikelperizena** eta **Rosa Mari Maiz Goñi**, Berakoa eta Arantzakoa, apirilaren 14an.
**Josu Laka Fresneda** eta **Itziar Mitxelena Etxeberria,** Bermeo eta Igantzikoa, apirilaren 21ean**.**



## SORTZEAK

**Mikel Etxebertz Rios**, Amaiurkoa, martxoaren 17an.
**Danny Elizalde Trevejo**, Oronozkoa, martxoaren 25ean.
**Irati Biguria Etxabarri**, Elizondokoa, martxoaren 25ean.
**Izaro Urrutia Iturralde**, Elizondokoa, martxoaren 26an.
**Mikel Artieda Vila**, Berakoa, apirilaren 14an.
**Miguel Iturrarte Ezlaba**, Leitzakoa, martxoaren 27an.
**Eneko Mariñelarena Egues,** Leitza, martxoaren 27an.
**Luna Alonso Saenz**, Leitzakoa, apirilaren 4an.
**Amaiur Elizalde Mitxelena**, Etxalarkoa, apirilaren 2an.
**Unax Etxarte Etxeberria**, Igantzikoa, apirilaren 16an.



## HERIOTZAK

**Andres Arizaleta Azkarraga**, Azpilkuetakoa, apirilaren 18an, 80 urte.
**Juana Apezetxea Lujanbio**, Goizuetakoa, martxoaren 4an, 90 urte.
**Sabina Apezetxea Perurena**, Goizuetako martxoaren 16an, 85 urte.
**Francisca Iturria Altzuri**, Igantzikoa, apirilaren 10ean, 84 urte.
**Eusebio Irazoki Arrieta**, Sunbillakoa, apirilaren 19an, 77 urte.
**Nasario Zabalo Telletxea**, Ezkurrakoa, apirilaren 14an, 85 urte.
**Felipa Gerendiain Beloki**, Berakoa, apirilaren 13an, 95 urte.
**Amalia Galtzagorri Galtzagorri**, Sunbillakoa, apirilaren 14an, 81 urte.
**Francisca Iturria Altzuri**, Igantzikoa, apirilaren 16an, 84 urte.
**Libia Mindegia Iñigo**, Iturengoa, apirilaren 18an, 98 urte.
**Periko Maia Tapia**, Lesakakoa, apirilaren 18an, 58 urte.
**Eusebio Iratzoki Arrieta**,Sunbillakoa, apirilaren 19an, 67 urte.
**Rosario Gorostiaga Eskala**, Ezkurrakoa, apirilaren 21ean, 89 urte.
**Alvaro Arias Lopez**, Zubietakoa, apirilaren 21ean, 55 urte.
**Pilar Etxandi Urroz**, Donamarikoa, apirilaren 23an, 67 urte.



ATLETISMOA

# Maiatzaren 6an eginen da XIII. Rafael Maritxalar Herri Lasterketa

## Lasterketa bi mailatan banatu dute: gazteentzat eta nagusiagoentzat

**Gurutze PIKABEA**

Igande honetan, maiatzaren 6an eginen da Rafael Maritxalar Lesakako XIII. Herri Lasterketa. Batzoki elkarteak antolatu du aurtengoan ere, Lesakako Udalaren eta bertze zenbait entitateren laguntzarekin.

Lasterketa bi mailatan banatu dute: gazteentzat A zirkuitua, eta nagusiagoentzat B zirkuitua. Gazteen mailan aurre-benjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta haurrak arituko dira, eta aurre-benjaminetan ez ezik gainerakoetan neskak eta mutilek egin beharreko bidea desberdina izanen da: itzuli bat guttiago neskak. Gaztetxoenek 10:00etan dute hitzordua, eta hortik aitzinera gainerakoek.



ARTXIBOKOA

**Joan den urteko edizioan Rafael Maritxalar bigarren postuan gelditu zen.**

Nagusien txanda, berriz, 12:00etan hasiko da. Maila honetan ezinduek, kadeteek, jubenilek, juniorrek, seniorrek eta helduak (35 urtetik goiti) aritzeko aukera izanen dute.

Behin froga nagusia bukatzean, sari banaketak eginen dira: kategori bakoitzeko hiru lehenengoei eta lehenengo lesakarrari emanen zaizkio. Federatu gabeko taldeen kasuan, hiru lehenengoetan gelditzen direnek, arkume bat eskuratuko dute.

# 250 lasterkari atera ziren Leitzako Herri Krosan

**G.P.**

Apirilaren 15ean egin zen Leitzako XIX. herri lasterketa. laz baino partehartze ttikiagoa izan zen, 250 lasterkari atera baitziren; 2006an 425 lagun. Aurtengoan, Antonio Etxeberria iruñarrak irabazi zuen gizonezkoetan. 1994an Andres Perezek egindako markatik minutu eta erdira gelditu zen. 31 minutu eta 19 segundu behar izan zituen 10 kilometroko zirkuituari buelta emateko. 16. postuan helmugaratu zen Iñigo Irazoki herritarra. Beteranoetan, lehen herritarra Aingeru Mindegia izan zen. 26 minutu eta 19 segundu behar izan zituen eta hamargarren helmugaratu zen. Jubeniletan lehen leitzarra, Beñat Zabaleta izan zen, hirugarren. Emakumezkoetan, berriz, Maitane Melerok irabazi zuen lasterketa, 18 minutu eta 30 segundutan akitu zituen lanak. Garbiñe Hernandorena izan zen lehenbiziko herritarra, seigarren geldituzen, 22 minutu eta 37 segundoko denbora eginez. Beteranoetan, Miren Intxaurrondo izan zen lehenbiziko herritarra. Hamargarren. lekuan helmugaratu zen, 27 minutu eta 22 segunduko denbora eginez.

HERRI KIROLAK

# Nafarroako Goma Gaineko 4x4 sokatirako kanporaketa Lesakan

## Eskualdeko 7 talde ari dira txapelketan

**G. P.**

Maiatzaren 5ean Nafarroako Goma Gaineko 4x4 Sokatira Txapelketako kanporaketa eginen da Lesakako frontoian. Maiatzaren 1ean abiatu zen txapelketa Arbizun, eta guztira hiru jardunaldi jokatuko dira, azkena Urdazubin, hilaren 19an. Emakumezkoetan zein gizonezkoetan pisu bakarrean lehiatuko dira, eta aipatu, eskualdeko taldeen ordezkaritza zabala ari dela.

Emakumezkoetan 260 kilokoetan ari dira, eta hiru talde ari dira, horietatik hiru eskualdekoak: Beti Gazte A, Beti Gazte B eta Beti Gazte C. Gizonezkoak, berriz, 310 kiloketan ari dira eta sei taldetatik lau ingurukoak dira: Beti Gazte, Amaiur A, Amaiur B eta Amaiur C.

Urdazubin jokatuko den saioaren ondotik erabakiko zeinentzat izanen diren txapelak.



ARGAZKIA: TELLETXEA

**Beti Gazteko neskak txapelketan ari dira.**

TXIRRINDULARITZA

# Euskal Herriko Itzuliaren ondotik, Giroa prestatzen ari da Patxi Vila

## Giroan Damiano talde buruari laguntzea izanen da Vilaren lana

**Gurutze PIKABEA**

*«Zapore gazi-geza»*. Halaxe deskribatu digu Patxi Vila beratarrak Euskal Herriko Itzulia. Orain maiatzaren 12an hasiko den Italiako Giroa prestatzen ari bada ere, Euskal Herrikoan egindako lanarekin kontent gelditu zen Lampre taldeko beratarra, baina lehen bi etapetan ez zuen bere onena ematerik izan: *«Bi zati izan ditu niretzat Itzuliak. Lehen bi egunetan, aitzineko asteko sukarrak uste baino gehiago astindu ninduen. Hirugarrenetik aitzinera, eta hondarreko bietan hobeki ibili nintzen»*. Hasieran lehen hamar postuetan sartzea zuen helburu, baina gerora helburu berria bilatu zuen: etapa irabaztea. Eta justu-justu ibili zen hirugarren etapa hori irabaztetik, baina azkenean, Angel Viciosok esprinean aitzin hartu zion.

Lampre taldean ere gustura dago Vila. Dagoeneko 12 edo 13 garaipen erdietsi dituzte, eta Euskal Herriko Itzulian, taldeka, hirugarren gelditu ziren. *«Taldea oso orekatua dago, eta nahiz eta garaipenik ez lortu, hor gaudela erakusten dugu»*.



ARTXIBOKOA

**Patxi Vila Italiako Girorako prestatzen ari da. Argazkian Jon Brurekin.**

### «Hurrengo hitzordu nagusia Giroan»

Bat akitu orduko bertzeari begira. Martxoaren 12an hasiko da Italiako Giroa eta Patxiren hitzetan, Lampreren helburua: *«2004an Damiano Cunego taldekideak lortutako garaipena errepikatzea da»*. Maillot arrosa lortzea, alegia. Sasoin onean ikusten du Cunego eta irabazteko aukerekin. Patxiri dagokionean, berriz, Damianori laguntzea izanen da bere lana. *«Nahiz eta joan den urtean hamar lehendabizikoetan akitu, nire lana Damianori laguntzea da, taldearen helburu nagusia berak maillot arrosa jaztea delako»*.

Italiako Giroan, faboritoa, Patxirentzat Iban Basso da, iazko irabazlea. *«Joan den urtean egindako erakustaldiaren ondotik, bertze guztien gainetik dagoela erran daiteke»*. Halere, Lampren ez da aitzinera egiteko gogorik eta itxaropenik falta: *«talde sendoa da, eta Damianok berari dagokion pusketa jartzen badu, gure laguntzarekin posible da garaipen hori erdiestea»*.

FLASH

### *Mitxel Aginaga hirugarren Euskadiko distantzia luzeko duatloi txapelketan*

Mitxel Aginagak podiumean egoteko aukera izan du berriki. Arrigorriagan (Bizkaia) jokatutako txapelketan 200 lagun inguruk parte hartu zuten eta narbartearra hirugarren helmugaratu zen. Hasteko, kirolariek 14 kilometro egin behar izan zituzten oinez, ondotik 57 kilometro bizikletarekin eta bukatzeko bertze 7 oinez. Gizonezkoetan, lehendabiziko hiru postuak hasierako 14 kilometroetan erabaki ziren, Mitxel, Gorka Mujika eta Patxi Urizarrek osatutako hirukotearen artean, hain zuzen. Azkenean, txapela Patxi Urizarrentzat izan zen, Gorka Mujika ondotik, eta hirugarren narbartearra, irabazlearengandik hiru minutu eta sei segundura. Aipatu, Mitxelek Euskal Autonomia Erkidegoko lizentziarik ez duelako, nahiz eta hirugarren helmugaratu, bere denbora ez zela puntuagarria izan. Hala, postua Endika Gartziarentzat izan zen. Emakumezkoetan, berriz, Ana Casares nafarra gelditu zen irabazle.



# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### IKASTAROAK
**ELIZONDO**

**Maiatzaren 3an,** Erretzeari uzteko ikastaroa, Osasun Etxean.

### BESTAK
**IRURITA**

**Maiatzaren 16tik 20ra.** Xehetasunak gehigarrian.

**URDAZUBI**

**Maiatzaren 16tik 20ra.** Xehetasunak gehigarrian.

### ERAKUSKETAK
**URDAZUBI**

**Maiatzaren 28a bitarte,** «Udaberriko Klaustroa» izeneko pintura eta eskultura erakusketa Klaustroan. Asteartetik ortziralera 12:00etik 19:00era zabalik. Mendekoste Astelehenean, hilak 28, ere zabalik.

### BERTSO AFARIA
**SALDIAS**

**Maiatzaren 5ean,** bertso afaria Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolariekin, 21:00etan.

### SOLASALDIAK
**BERA**

**Maiatzaren 4an,** «Familia, telebista eta bertze pantailak» solasaldia Kultur Etxean, 17:30ean.

### ANTZERKIA
**BERA**

**Maiatzaren 18an,** «Meando fuera del tiesto» antzezlana eskainiko du Kunka taldeak 20:00etan Kultur Etxean.

**ELIZONDO**

**Maiatzaren 5ean,** «Lapurzuloa» antzezlana pilotalekuan, 21:30ean.

## TELEBISTAKO TXOKOA





MAIATZAREN 4KO ERREPORTAJEAN

# Erdizen egin nahi den harrobia, aztergai

Bizi-bizi dagoen eztabaida da Magna enpresak Erdiz aldean eraiki nah duen harrobiarena. Baztanen ez ezik, kezka eta oihartzun haundia sortu du inguruan.Alde batean, Magna enpresa dago, eta bertzean, Erdiz Bizirik plataforma, hasieratik kontra azaldu dena. Aitzineko alean aldizkarian landu genuen afera, oraingoan, telebistan landuko dute. Auzia ahalik eta sakonen garatuz, eta guztiz kontrajarriak diren iritziak entzuteko, Jokin Ramirez Baztango abeltzainarekin, Mikel Sobrino plataformako kidearekin eta Jose Antonio Yeregui Magnako industria arduradunarekin egonen dira. Harrobia eraiki nahi den inguruetara ere hurbilduko dira telebistakoak. Proiektuaren inguruan dauden aldeak sakon ezagutzeko, beraz, maiatzaren 4ko erreportajean.

**MAIATZAREN 11N, ARRANTZAZ SOLASEAN**

Aste bat beranduago, maiatzaren 11ko erreportajearen atalean, apirilaren 1ean abiatu zen arrantza denboraldia hartuko dute hizpide telebistako lankideek. Fran Agara Berako Ehiza eta Arrantza elkartekoa arauen inguruan arituko zaigu, eta ondotik, Bidasoara joanen dira Jose Mari Mitxelenak nola arrantzatzen duen ikustera.

## DISKAK




*Bidea eginez*
**ETXE**
*OIHUKA, 2007*

2005ean argitaratutako lehen maketa kontuan hartuta, lan berrian aldaketak daudela ezin da ukatu. Hamabi abestiko diskoan kolore desberdineko abestiak ditugu,eta zenbaitek arnasarik gabe uzteko kimika berezia dute; horren adibide *Zenbat bide* abestia. Senegaleko lagunaren testigantzak bitxikeria puntu bat ematen dio diskoari *Hegoaldetik testigantza* kantuan. Diskoari *making off*-a ere erantsi zaio grabaketa nola joan zen erakusteko. *Bidea eginez* diskoak rocka eta popa uztartzen ditu. Bizitasun eta indar handiko abestiak tartekatzen ditu ukitu samurragoa eta intimoagoa dutenkantuekin. Kantuak bete egiten ditu bere ahots lodi eta, aldi berean, erakargarriarekin. Alaitasun indartsua batzuetan eta sentiberatasun sotila bertzeetan. Bi munduak bat egiten ditu.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Martxoaren 23tik martxoaren 30era bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 37,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,055 € kiloa. (=)

**Zerramak:**
0,450 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,92 (=)
**1.koa** 3,64 (=)
**2.koa** 3,44 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 4,04 (=)
**1.koa** 3,76 (=)
**2.koa** 3,53 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 190,00 (=)
idixkoak 288,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 150,00 (=)
idixkoak 180,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,95/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,10/5,80
8-10 kilokoak: 4,10 /4,80

## JAKIN BEHARREKOAK

# Irati, mendi inguruaz eta lasaitasunaz gozatzeko leku paregabea

### Oinez zein bizikletaz mendi igoerak eta ibilbideak egiteko aukera

Irati lur-eremu zabala da (17.195 Ha). Antzinatik aprobetxatu izan da abereak bazkatzeko, egurra ateratzeko eta ehiza egiteko. Mendiz inguratutako eremua da, eta haren zatirik haundiena Aezkoa eta Zaraitzu ibarretakoa da.

Balio natural eta ekologiko handikoa da; izan ere, bertan dago Europako izeidi-pagadirik haundienetako bat. Basoko zenbait alderditan natura babesteko izendapenak sortu dira, bertzeak bertze, HBBEak, Erreserba Integralak, Natur Erreserbak eta aurki BIL (Batasunerako Intereseko Lekua) bat izendatuko da. Pagoa da nagusi Iratin, baina, kopuru ttikiagoan, izeiak eta kalitatezko larreak ere badaude. Irati ezagutzeko honako aukera hauek



Beuntzako ibilbidea hagitz erakargarria da.

daude: seinaleztaturiko bideak, zeharkaldiak, mendiko bizikletaz ibiltzea....

Aezkoa eta Zaraitzu Ibarretako Batzordeek, Iratiko Oihanaren kudeatzaileek, alegia, bisitariak errealitate honetara hurbildu nahi dituzte bien artean prestaturiko web orri honen bidez. Erabil ezazu.

Iratiko Oihana natur gune ederra da urte osoan. Paisaia ñabardurez beterik agertzen zaigu urtaro bakoitzean: udaberrian, hosto berde-berdeak; udan, abereentzako larre horixkak; udazkenean, hostoak hamaika kolorez jantzten dira; eta neguan, isiltasuna eta, tarteka, elurraren zuritasuna nagusi dira...

Aktibitate anitz egin daiteke bertan, hala nola, ibilaldiak eta zeharkaldiak oinez zein mendiko bizikletaz, mendi-igoerak eta elurretako kirolak —erraketekin ibili, iraupen eskia egin Abodin, e.a.—.

Iratiko Oihanak 16 ibilbide eskaintzen dizkizue. Goñiburuko Begiratokia, Abodiko gainak, Koixta, Iratiko Etxeak, Zentzumenen Ibilbidea, Urbeltza errekaa, Zabaletako Oihana, Cerrillar, Ursarioko Basoa, Mendilatz, Arlekia-Lauzaran, Anbulolatz, Azalegi-San Esteban, Plaza Beunza, Irabiako Uharkari Itzulia, Los Paraísos-Erlan.

Ibilbide guztiak seinaleztaturik daude berdez eta zuriz eta abiapuntuan argibide-taula aurkituko duzue. Ibilbideek 10 kilometro baino gutxiagoko luzera dute. Oro har, adin guztietakoek egin ditzakete.




## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### ZUGARRAMURDI
**Maiatzaren 13an,** Zortzi milakoak, Atxuria mendi taldeak antolatua.

#### SUNBILLA
**Maiatzaren 13an,** Anbotora mendi ibilaldia, Ulibeltzak mendi taldeak antolatua.

#### BAZTAN
**Maiatzaren 6an,** Almandozera ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak.
**Maiatzaren 13an,** Herri Urratsera ateraldia Baztango Mendigoizaleak antolatua.

#### BERA
**Maiatzaren 6an,** VIII. Berako Mendi Itzulia. 30 kilometroko ibilibidea. Izen ematea Agerra Mendi taldearen egoitzak 6:00etatik 7:50 bitartean. Ibilaldiaren irteera 7:00etatik 8:00etara.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO
**Maiatzaren 5ean,** Lur Djotak Lur dantzalekuan 1:00etatik aitzinera.

#### SALDIAS
**Maiatzaren 5ean,** Trakets taldea, afalondoan.

### DANTZAK

#### ARANTZA
**Maiatzaren 12an,** Mikelats taldea pilotalekuan, 20:30etik aitzinera.

### OSPAKIZUNAK

#### SENPERE
**Maiatzaren 13an,** Herri Urrats iparraldeko ikastolen aldeko besta aintziraren inguruan.

#### SARA
**Maiatzaren 12an,** Xiba Euskal jokoen IV. Topaketa.

## ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

**00-34 948 63 54 58**

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

MERKATU TTIKIA

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

**ETXEBIZITZAK**
**101.** Saldu
**102.** Erosi
**103.** Errentan emateko
**104.** Errentan hartzeko
**105.** Etxe konpartituak
**106.** Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
**107.** Saldu
**108.** Erosi
**109.** Errentan emateko
**110.** Errentan hartzeko
**111.** Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
**112.** Saldu
**113.** Erosi
**114.** Errentan emateko
**115.** Errentan hartzeko
**116.** Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
**201.** Hargin/Igeltseroak
**202.** Pintoreak
**203.** Elektrizistak
**204.** Iturginak
**205.** Zurginak
**206.** Mendi lanak
**207.** Garraioak
**208.** Bertzelakoak

**LANA**
**301.** Eskariak
**302.** Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
**401.** Eskaintzak
**402.** Akademiak

**MOTORRA**
**501.** Salerosketak
**502.** Tailerrak

**ANIMALIAK**
**601.** Emateko
**602.** Salerosketak
**603.** Klinikak

**DENETARIK**
**701.** Galdu / aurkituak
**702.** Salerosketak
**703.** Bertzelakoak

**HARREMANAK**
**801.** Agurrak

2007/05/03 • ***445.*** zbk.

**ADOS**

**ELIZONDO.**
- 2. eskuko pisuak salgai.
- VPO pisuak salgai.

**ERRATZU.**
- Apartamentua salgai.

**ARRAIOZ.**
- Pisua salgai.

**BERA.**
- 2. eskuko pisuak salgai.
- Etxea salgai.

**LESAKA.**
- 2. eskuko pisuak salgai.

**ETXALAR.**
- Baserria salgai.

**DONEZTEBE.**
- Apartamentua trastero eta aparkalekuarekin salgai. AUKERA ONA!!
- Promozio berriko pisuak salgai.
- Inguruan etxeak, baserriak eta bordak salgai.

**BAZTAN-BIDASOA.**
- Bordak, baserriak,etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.

**PROMOZIO BERRIAK:**
**IGANTZI.** Azaken pisua eta duplexa salgai.

INFORMA ZAITEZ!
**948 451 841 / 948580705**
**www.ados-inmobiliaria.com**

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**
- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurrarekin salgai.

**Tel. 948 580 804 / Faxa. 948 581459**
**anzabal@anzabal.com**

Baztango
promoción inmobiliaria

**SALMENTA:**
BERA: Pisu berriak, igogailuarekin.
BERA: Bigarren eskuko 2 eta 3 logelako pisuak
BERA: Lokalak salgai eta alokairuan.

**LUR EREMUAK:**
BERA, SUNBILLA, ERRATZUn neurri desberdinetakoak.

**ALOKAIRUAK:**
BERA: Pisua 3 logelakoa, igogailuarekin.

**ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXE ZAHARRAK, PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.**

Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

**BULDAIN**

INMOBILIARIA

LEITZA:
Herri erdian eraiki behar diren lau pisu eta bi apartamentu salgai.

Tfnoa: 948 510 534 bulegoa

## ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**IRUÑA.** Pisua salgai Tafalla kalean, 90 m². Prezio negoziagarria. ☎669 732078.

**ETXALAR.** Baserria bere lurrekin salgai. ☎948 635122 (20:00etatik 22:00etara).

**LESAKA.** 229 m² dituen familia bakarreko etxearen proietua, lur eremuarekin eta lizentziekin salgai. Lur eremu urbanizatua urarekin, argiarekin, ur zikinen putzuarekin... Prezioa: 50 milioi euro (negozioatu daiteke). ☎678 526091.



**IRUN.** Pisua salgai Nafarroa Etorbidean, 8 bizitzako etxean. 3 logela, 2 komun kapritxora eraberrituak, 3 balkoi, propano-berogailua, egongela, trastelekua eta lorategi komunitarioa. ☎667 074419.

## ETXEBIZITZAK

### 104 Errentan hartu

**ELIZONDO.** Etxea edo pisua errentan hartu nahi da Elizondon edo inguruan. ☎647 050496 / 662 251848.

**BAZTAN.** Etxea, borda edota baserria errentan hartuko nuke Baztanen. Etxea zaindu eta bertan konponketak egiteko prest nago, alokairu merke baten truke. ☎619 605939.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 Errentan eman

**LEITZA.** Amazabal 31n tarteko solairua errentan emateko. Bi lokalekin (ezker-eskuin), 30 m² eta 40m²koak eta komunarekin. Argitsua. ☎ 948 510471.

## ZERBITZUAK

### 208 Bertzelakoak

**BORDA**
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

## LANA

### 301 Eskariak

**Neska** bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎669 180779.

Udan, herriko bestetan **ostatuan** lan egiten nuke. ☎650 948330.

40 urteko **emakumea** eskaintzen da orduka garbiketa lanetan aritzeko eta haurrak zaintzeko. ☎628 800865.

## LANA

### 302 Eskaintzak

**DONEZTEBE.** Estetika zentro batean lan egiteko pertsona behar da. ☎666 394193.

**ARESO.** Alpa Aluminio lantegian langileak behar dira. ☎ 948510711 (Alvaro Gaspar)

**Kontsumo teknikari** lanerako postua eskaintzen du Gazte Kontseiluak. 4 orduko lana, hasiera batean abendua bitarte. Interesatuek bidali curriculuma *gazte-ko @pangea.org* helbidera.

**BERA.** Jatetxe batean zerbitzaria behar da. ☎654 385363.

**OITZ.** Oizko posadan zerbitzaria behar da asteburu eta jai egunetan lanean aritzeko. ☎948 451951.

**ELBETE.** Erretegi batean zerbitzaria behar da. Ahal bada esperientziadua. ☎948 452088/ 619 253932.

**BERA.** Frantsesa eta euskara dakien neska behar da Ibardingo oparidenda batean asteburuetan eta udan lan egiteko. ☎ 948 630718.

**BERA.** Ibardingo benta bateko ostatuan barran egunero lan egiteko frantsesa dakien pertsona behar da. ☎ 948 631394.

**BERA.** Ibardingo benta bateko urdaitegian egunero lan egiteko pertsona behar da, frantsesa dakiena. ☎948 631394.




BERAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

**UDAL PLANAREN BATERAGARRITASUN ERAENTZAREN GARAPENA HASIERA BATEZ ONESTEA**

BERAko Udalak, 2007ko otsailaren 28an egindako Udalbatzarrean, Udal Planaren Bateragarritasun Eraentzaren garapena hasiera batez onestea erabaki zuen.

Espedientea jendeaurrean izanen da hilabete batez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik kontatzen hasita.

Bera, 2007.04.18
ALKATEA
Helena Santesteban Goelbenzu

**BERA.** Katakuostatuan pertsona euskalduna behar da lan egiteko. ☎659 097216.

**BERA.** Zalain Motorren emakumea behar da kotxeak garbitzeko. Gida baimenarekin. ☎948 631157.

**LESAKA.** Trailer batekin inguruan lan egiteko txoferra behar da. ☎690 776147.

**MOTORRA**

## 501 Salerosketak

**Citroen Xsara diesel 2.0 HDI** autoa salgai, 90 CV, 2002koa eta egoera onean. ☎ 620 884046.

**Audi A3** salgai, 9.000 euro. Gasolina. ☎ 635 696688.

**BMW 320D** autoa salgai, 2000an erosia. Egoera onean. ☎ 948 634077.

**Golf TDI 115** autoa salgai, 6 urte eta 120.000 kilometro. Klimatizadorea, aluminiozko llantak, ordenagailua... ☎ 680 343337.

**Golf 1.9 TD** autoa salgai, seri 3, NA-AL. Egoera onean. ☎ 627 309695.

**Ford Focus familiarra** salgai, diesela. ☎ 616 078307.

**Renault 19 TD** autoa salgai. Prezio onean. ☎948 634112 (20:00-21:00)/ 620401461.

**MOTORRA**

## 502 Tailerrak

**ANIMALIAK**

**MENDAUR MOTOR**
948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa, Renault Laguna, Ibiza eta Almera.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**TALLERES SANTESTEBAN**
948 450282 • DONEZTEBE
**KOTXE IA BERRIETAN ESKAINTZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)**
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.
**BIGARREN ESKUKOAK**
Opel Astra 2.0, Kangoo 1.9 D 2001koa (gibeleko aldea itxia), Laguna 2.2 DCI 150 CV, Citroen C5 2.0 HDI, Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Renault Express 1.6 D.

## 602 Salerosketak

**Bi ahari mutur gorri** salgai, bat adarrarekin eta bertzea adarrik gabe. ☎948 451696.

**21 ardiren eskubideak** salgai. ☎ 948 634260.

**DENETARIK**

## 702 Salerosketak

Etxe zahar baten **harri pikatua** salgai, kabezala 2,70. ☎948 635188.

Rifle batentzako **Swrovski** batidako bisore berria bezalakoa salgai, L' 25-4x24 LG modeloa, leku zikinetan eta ilunetan erabiltzeko aproposa. ☎607 457004 (Dani).

**Komuneko antzinako altzaria** (lababoa ispiluarekin, pitxerra eta antzinako armairua) eta Ortziren «**Euskadi pueblo y nacion**» **liburu bilduma** salgai (Sendoa argitaletxea). ☎ 639 266069.

**DENETARIK**

## 703 Bertzelakoak

**Dizdira** hirukotea. Ezkongaientzako opari paregabea. Euskal kantuak eta bertso pertsonalizatuak eskaintzen dira. ☎626 511353.

**HARREMANAK**

## 801 Agurrak

**Jaione Bergara** aranztarrak urteak beteko ditu maiatzaren 14an. Ailegatu da 23.a e! Aunitz urtez eta muxuk kuadrilkun partetik!!






# urtebetetzeak

**Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.**

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.** www.ttipi.net



**Eneko Arruperia Soubelet** urdazubiarrak urtea bete du apirilaren 16an. Zorionak morroxko familia guztiaren partetik.



**Alaitz Olanok** apirilaren 25ean 7 urte beteko ditu. Zorionak eta musu haundi bat aitatxo, ama eta Leireren partetik. Zorionak pitxurri.



**Mirenek** apirilaren 20an 8 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Ane Ordoki Telletxea** lesakarrak 4 urte bete ditu apirilaren 28an. Aunitz urtez!



**Eneko Zubieta Gonzalez** etxalartarrak apirilaren 29an 2 urte bete ditu. Muxu haundi bat Daniel anaiaren partetik. Aupa Eneko.



**Eneko Zubieta Gonzalez** etxalartarrak apirilaren 29an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Aunitz urtez **Maritere**, ongi pasa eguna eta ea txupito batzutara gonbidatzen gaituzun! Muxu bat, Jaione, Itziar eta Amaia.



**Gurutze Andueza** eta **Haitz Telletxea** beratarrak 18 eta 4 urte bete dituzten apirilaren 7an eta 28an. Zorionak pareja, eta muxu haundi bana familiaren partetik.



**Arantxa Sese Agara** beratarrak 9 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Aurten jaunartze eguna! Zorionak atta, ama eta bereziki Maddi eta Josetxoren partetik.



Doneztebeko **Lorena Ezkurrak** urtea beteko du maiatzaren 15ean. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



**Olaia Altzuri Makuso** aurtiztarrak maiatzaren 2an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik, bereziki Iosu, Mikel eta Ainara.



**Iosu Altzuri Makuso** aurtiztarrak maiatzaren 11n 13 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handiak familiaren partetik, bereziki Mikel, Olaia eta Ainara.



Aunitz urtez **Saioa**! Gure rugbilari «onenak» 18 urte bete ditu apirilaren 21ean. Muxu aunitz zure lagunen partetik.



Elizondoko **Mirian Goñik** 18 urte beteko ditu maiatzaren18an. Aunitz urtez zure lagunen partetik. Ez aldatu inoiz eta segi beti bezain graxioxa. Muxux.



**Nerea Bakero Arakama** irundarrak apirilaren 13an 7 urte bete ditu. Muxu haundi bat eta zorionak! Maddi.



Goizuetako **Lurdes Eskuderok** 72 urte bete ditu apirilaren 25ean. Non dago bizkotxo goxo hori amona? Muxu asko Irundik!! Nerea eta Maddi.



**Bihotz Alustiza** aranztarrak urtea beteko du maiatzaren 12an. Zorionak Uxue, aitatxo eta amatxoren partetik.



**Joseba Petrik** maiatzaren 2an 29 urte beteko ditu. Zorionak Agenda de Liverpoolekoen partetik.



**Maria Martin Baiona** etxalartarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat gure printzesari. Uramendiko familia.



**Ainhoa Larretxea Agirre** beratarrak 11 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta aunitz urtez etxekoen partetik.



**Aloña Etxarte Telletxea**. Zorionak Sorgina!



**Eneritz Perez Alejos** beratarrak 3 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guztiaren partetik.



**Ane Telletxea Iraola** igantziarrak maiatzaren 4an urtea beteko du. Zorionak atta, ama eta Markelen partetik.



**Aimar Telletxea Iraola** igantziarrak maiatzaren 15ean 7 urte beteko ditu. Zorionak atta, ama eta Markelen partetik.



**Iker Telletxea Igoak** 6 urte beteko ditu maiatzaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



**Ainarak** apirilaren 30ean 4 urte bete ditu. Lau muxu potxola! Haizea, amatxo, attato, atatxi-amatxi eta Koxka.



Zorionak **Ane**, Igantziko Bentatako gure loreari! Ignacio eta Julia.



Zorionak **Aimar**, Igantziko Bentatako gure pitufoari! Muxu aunitz margaritetan.



**Julene Mitxelena Lasagak** urtea beteko du maiatzaren 2an. Muxu aunitz Ekhiñe ahizparen partetik. Zorionak sorgina!



**Julene Mitxelena Lasagak** urtea beteko du maiatzaren 2an. Muxuak gure pottokari atta eta amaren partetik.



**Julene Mitxelena Lasagak** urtea beteko du maiatzaren 2an. Zorionak familia guztiaren partetik.



**Asier Gelbenzuk** 3 urte beteko ditu maiatzaren 5ean .Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**Amaia Irigoien** baztandarrak urteak bete ditu maiatzaren 2an. Aunitz urtez!!!



**Mariano Esebberri Azkoiti** elbetearrak urteak beteko ditu maiatzaren 16an. Txokolatada eta proiekzioa noizko? Tanti Auguri!! Bacis.

**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,30 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

**ttipi-ttapa**
Andutzeta, 12 • **31760 ETXALAR**

**Urtebetetzeko argazkiak Internet-en ere**
www.ttipi.info


BORTZIRIETAKO IKASTOLAK
1974TIK KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ
Gu ere
LABIAGA
IKASTOLAN
TANTIRUMAIRU
IKASTOLAN
gu ere...
MATRIKULATU
EUSKARAZ
948 630 172 (BERA)
948 637 308 (LESAKA)


SAN FRANCISCO JAVIER
Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa
ELIZONDO • Tfnoa. • Faxa: 948 581 808 • e-posta: cpelizon@pnte.cfnavarra.es
MAIATZAREN
9tik 22ra
ESKOLA
PUBLIKOA
AURRERANTZ

www.lurelizondo.com

maiatzak5

# LURDJOTAK

**01:00 8€** kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

maiatzak12

# ZOZKETAREN GAUA

**ZOZKETA 02:30etan ospatuko da sariduna atera arte!**

**01:00 8€** kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte



maiatzak26

# TXUTXINIBAÑEZ

## DISKA BERRIAREN AURKEZPENA +JALISKO BAND

**00:30 8€**

Elizondo(Nafarroa)